



→ 43
Iñigo LASAGA
Nafarroako Kopako txapelduna

Feriak Donezteben

Azaroaren 13an → 17-22

ARANTZA → 15

Baserritarren Eguna azaroaren 1ean

AURTITZ → 24

San Martinak azaroaren 4tik 8ra eta 11n

GOIZUETA → 32

Larrialdietako mediku zerbitzua konpontze bidean

BAZTAN → 36

Arraioko supermerkatua maiatzean irekiko da



Tolosako Zezen-Plazan azaroaren 8an, 12:00etan

Elkarren kontra lehen ere ibiliak dira apustuetan Mindegia eta Larretxea. 1986an 12 oinbikotara jokatu zuten, eta Ezkurrakoa nagusitu zen. 1989an, berriz, 40 kanaerdikotara jokatu zuten, eta orduan arantarra izan zen garaile.

KIROLAK → 44-45

Mindegia eta Larretxeak hirugarren aldiz neurtuko dituzte indarrak



Haizea ERKIZIA | Doneztebeko gaztea

ELKARRIZKETA → 3

Itxaropentsu ebakuntzarekin

Gurpil-aulkian dago 2007ko abenduan auto-istripua izan zuenetik. Baina ekainean Portugalgo Reis medikuak egin zion ebakuntzak itxaropena piztu du beregan.



ERREPORTAJEA → 4-5

Goiz Mendi taldea, ibiltzea gustuko dutenezat

Eskualdeko erretiratuen mendi taldea da Goiz Mendi eta hainbat tontor egin dituzte.

Hipermerkatua
 Merkatu tradizionala
 Moda eta Osagaiak
 Kirolak eta Zerbitzuak
 Aisia eta Zinemak
 Jatetxeak

Mendibil
 parque comercial
 merkataritza gunea

ZURE MERKATARITZA GUNEA IRUNGO ERDIGUNEAN
 TU CENTRO COMERCIAL EN EL CENTRO DE IRUN

www.parquecomercialmendibil.com

PARKINGEAN ORDU 1*
DOAN
 *Parkingeko sarrera aurkeztu
 Kopela ezin da pilotatu. 09/11/20 arteko balioa

2007ko abenduaren 22an kotxearekin istripua izan eta bizkarrezur muinean min hartu zuen Haizea Erkizia 24 urteko doneztebarrak. Geroztik gurpil-aulkian dago. Gerritik beheiti-

ko sentikortasun eta mugikortasun guztia galdu zuen. Baina ekainean Lisboan (Portugal) Antonio Reis medikuak ebakuntza berezia egin zionetik itxaropentsu dago.

Reisek bizkarrezurra ireki eta goitik beheiti garbitzen du bizkarrezur muinaren hodia, informazioa pasatzen uzteko, eta gero errehabilitazioaren bidez hobetzen uzten du.

Haizea ERKIZIA | Gurpil-aulkian dagoen Doneztebeko gaztea

«Ez gara egun batetik bertzera oinez hasiko, baina itxaropena hor dago»

G. PIKABEA | DONEZTEBE

Kotxe istripuaren ondorioz gurpil-aulkian gelditu zinen...

Bizkarrezur muineko traumatismo larri bat izan nuen eta gerritik beheiti sentikortasunik eta mugikortasunik gabe gelditu nintzen.

Zer erran zizuten medikuek orduan?

Iruñera joan eta bizkarrezurra zuzen paratze-ko ebakuntza bat egin zidaten, golpearekin okertua nuelako. Hemen zuzen paratu bakarrik egiten dute eta bizkarrezur muinean min hartutakoak Toledo edo Bartzelonako zentru espezializatuera bideratzen dituzte. Ni Bartzelonako Guttman Institutuan egon nintzen. Bertiko horrela geldituko nintzela erran zidaten eta gurpil-aulkian bizitzen erakutsi zidaten: bakarrik kotxera sartzen, jantzen... Sei hilabeteren buruan, Doneztebera bueltatu nintzen, aulkian, eta bizi berri hau aitzinera eramaten hasi nintzen. Etxean aparatu batzuekin egunero jartzen nintzen zutik, zirkulazioarendako ona zelako, baina bertze tratamendurik hartu gabe. Salaman-kara ere joan nintzen eta ikasketekin segitu nuen.

Eta nola izan zenuen Reis medikuaren berri?

Aitak egunkari batean artikulatu bat irakurri zuen, baina ez genion garran-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Haizea Erkizia bankuan jarrita, gurpil-aulkia ondoan duela.

tzirik eman. Handik denbora batera, ahizpak irratian Lisboan operatu tako biren testigantzak aditu zituen, eta niretzako balio zezakeela pentsatu zuen. Familiako baten bidez, Reisek operatu zuen euskal herritar batekin harremanetan jarri nintzen. Bere historia eta bertze batena kontatu zizkidan, eta Internetez eurekin egoten hasi nintzen. Hurrengo pausoa Reisen fisioterapeuta den Graça Mendesekin egotea izan zen. Nire erresonantzia-magnetikoa erakutsi nion, ez baitituzte kasu guztiak

POLIKI-POLIKI HOBERA

«Hau ez da Lurdes, ez dago miraririk, eta egun batetik bertzera ez gara oinez hasiko, baina itxaropena beti hor dago. Hemen ez dute irtenbiderik ematen eta Reisen ebakuntzak, aldiz, atea erdi irekia uzten du eta poliki bada ere, hobetzen ari gara».

operatzen. Medikuarekin egon nintzen gero eta honen ebakuntza egiten ahal zidala erran zidan. Ez nuen dudarik izan, eta ez naiz damutzen.

Badu arriskurik?

Anestesia dela-eta bertze edozein ebakuntzak izan dezakeena. Lesiotik beheiti lan egiten dute, eta nire kasuan, ez nuen deus galtzekorik, gerritik beheiti ez nuelako deus sentitzen ez mugitzen ere.

Eta errehabilitazioa?

Hiru edo sei hilabete behin Lisboaara joan behar dut. Internetez zein ariketa egin behar ditu-

dan erraten dit eta etxean egiten ditut. Egunero muletekin zutik jartzen naiz, laguntzarekin, eta astean hirutan lurrean ariketak egiten ditut. Hobetuz gero, fisioterapeutak ariketak aldatzen dizkit. Argi dago emaitza onak dituela euren lanak.

Reisek kontrakoak ere baditu...

Bai, kritika haundiak jasotzen ditu, baina lan haundia egiten ari da eta ezagutu ditudan kasu guztiek emaitza onak izan dituzte. Zientifikoek onartutako lana da berea. Pena da hemen horrelako tratamendurik ez izatea, eta Lisboaaraino joan eta dena gure kontutik ordaindu behar izatea.

Hobekuntzak somatze-ko urte batzuk beharko dira, ez?

Bai, errehabilitazioa mantsoa da, eta pertsonaren araberakoa. Hau ez da Lurdes, ez dago miraririk, eta ez gara egun batetik bertzera oinez hasiko, baina itxaropena beti hor dago. Hemen ez dute irtenbiderik ematen eta Reisen ebakuntzak, aldiz, atea erdi irekia uzten du eta poliki bada ere, hobetzen ari gara.

Zer erranen zenieke aulkian daudenei?

Emaitza onak ikusita kontuan hartzeko ebakuntza iruditzen zaidala. Baina norberak hartu behar du erabakia.

MENDIA → GOIZ MENDI TALDEA

Sasoiak adinik ez duelako hitzordua Goiz Mendi taldearekin

2001ean sortu zen erretiratuena mendi talde honek hainbat eta hainbat mendi eta txoko zapaldu ditu

Erretiratuak dira ia denak, ez urrutikoak baina bai herri diferentetakoak, eta afizio bakar batek lotzen ditu: mendiak. Goiz Mendi elkarteaz ari gara, 17 laguneko gizon eta emakumezkoen taldeaz. Mendingian

ibiltzea gustatu, eta 2000. urtean abiatu zituzten harat-honatak. Geroztik 120 mendi ateraldi eta bidaia baino gehiago eginak dituzte eta etorkizunean ere horrela izatea nahiko lukete.



G. PIKABEA | ESKUALDEA

Duela bederatzirte Arkupeak Elkarteak Done Jakue bidearen Baztango zatia egiteko bidaia antolatu zuen. Sei etapatan banatuta, Dantxarinear hasi eta Sakanan barna, Arabako mugan akitu zuten itzulia, Ziordian. Ederki joan zen, baina nonbait ez zen nahikoa izan.

Oinez lagunartean ibiltzeari gustua hartu, eta gehiagorako txirrintarekin gelditu ziren batzuk. Hala, Baztango zatia akitutakoan, Done Jakue bide osoa egitea pentsatu zuten, Donibane Garazitik hasita. Eta erran eta egin. 2001eko ekainaren 10ean bukatu zuten.

Hurrengo urratsa taldea antolatzea izan zen. Eta horrela sortu zen Goiz Mendi. Izena Zugarramurdiko Juan Iratzoki taldekidearen ideia izan zen: «Goiz jaikitzen garelako mendira joateko». Hilabete behin guttienez, ateraldi bat egitea erabaki zuten.

Goiz Mendiren helburuak bi direla azaldu digu Ezkurrako Fernando Etxeberriak: «alde batetik, etxetik atera eta mendian ibiltzea eta bertetik, toki berriak ezagutzeko». Arizkungo Inozentzi Sukilbidek, bere aldetik, helburua «denak elkarrekin ongi hartu eta mendian ibiltzea» dela aipatu digu. Eta Juan Iratzokik bide bereetik jo du: «elkartu, bazkaldu eta denbora berean mendian ibili eta tokiak ikustea ederra da».

17 LAGUNEKO TALDEA

Sorreratik honat lagun batzuk atera eta berriak sartu dira eta gaur egun 17 kidek osatzen dute taldea: Loli Trantxe (Bera), Jose Mari Iturbide (Igantzi), Paula Uhartea eta Pantxito Ugalde senar-emazteak (Arizkun), Inozentzi Sukilbide (Arizkun), Migel Migeltorena (Urdazubi), Manuel Aleman eta Ana Uhartea (Iruñean bizi diren baztandarrek), azken honen

ahizpa Emili Uhartea (Eli-zondo), Mertxe Arburua eta Juan Iratzoki senar-emazteak (Zugarramurdi), Martina Dendarrieta eta Joxe Iratzoki senar-emazteak (Zugarramurdi), Fernando Etxeberria (Ezkurra), Karmele eta Txaro Pla ahizpak (Iruñea) eta Elena (Hondarribia). Erretiratuak di-

ra denak, Pla ahizpak izan ezik.

URTEROKO HITZORDUAK

Done Jakue Bidea bi aldiz, Pirinioak hainbat aldiz, Xabiererako bidea, Bertiz, Xorroxin, Legate, Saioa, Mendaur, Aralar, Beriain, Txindoki, Aizkorri, Gorbeia... Zerrenda luzea du gibe-

lean Goiz Mendi taldeak. Aurten, erraterako, Izaban aste bat pasatu dute, eta egunero inguruko mendietara ateraldiak egin dituzte: Lakora eta Ezkaurrera, adibidez. Horrez gain, irailean kostaldetik Done Jakue bidearen zati bat egin zuten. Eta hurrengo urteetan ere, garai



ESALDIA

«Arkupeak Elkartearekin mendi talde bat sortzea da nire ametsa»

Fernando ETXEBERRIA
Ezkurrako mendizalea



ESALDIA

«Helburua denak elkarrekin ongi hartu eta mendian ibiltzea da»

Inozentzi SUKILBIDE
Arizkungo mendizalea



ESALDIA

«Denok ibili beharko genuke, medikuak agindua emateari esperatu gabe»

Juan IRATZOKI
Zugarramurdiko mendizalea



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Goiz Mendiko mendizaleak urriaren 14an
uso jana egin zutenean

berean, berdin segituko dute.

120tik goiti irteera egin dituzte, eta Etxeberriak azaldu digunez, «hasierako ilusio berarekin segitzen dugu, nahiz eta urte gehiago izan eta bakarren batek mugikortasun arazoren bat eduki». Mendiz mendi ibiltzeaz gain, tarteka omenaldiak ere egiten dituzte, taldekideek 70 urte betetakoan. Hain zuzen, omenduen artean Juan Irtzoki dago. 2003ko abenduaren 10ean jaso zuen taldekideen omenaldia.

Ateraldiak nora egin nola erabakitzen duten ere galdetu diegu mendizaleei. Eta Irtzokik erran digunez, «hemen inguruan egitekotan ba-

koitzak bere aldekoa antolatzen du, baina hemendik kanpo ateratzen, Fernandoke egiten du dena, artista da». Inozentzi Sukilbidek ere Ezkurrakoaren lana nabarmendu du: «Fernando dugu *sherpa*. Ongi prestatzen ditu beti irteerak, eta eskerrak berari, bertzela, gu etxe inguruan ibiliko ginatke». Etxeberriak, bere aldetik, «proposamenak edozeinek egin ditzakeela» adierazi digu.

Mendia eta kosta, asfalto eta belarra, elurra, maldak eta zelaiak... Denetarik probatu dute urteotan Goiz Mendiko kideek. Batzuk bertzeak baino gogorragoak, eta batzuk bertzeak baino politagoak. Sasoiak ere batzuen kasuan hobeak. Baina denek gozatzen dute mendian.

AITZINERA BEGIRA GOGOTSU

Etorkizunari ere ilusioz begiratzen diote. «Orain arte bezala, hilabetero mendi ateraldi bat

GOIZ MENDI TALDEA DONE JAKUE BIDEAN



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Goiz Mendiko lagunak Santiagoko katedralaren aitzinean

Done Jakue bidea hirugarren aldiz

Hirugarren aldiz egiten ari da Done Jakue bidea Goiz Mendi taldea. Azken hau, ordea, bertzeetan ez bezala, kostaldetik. Eta Sukilbidek, Irtzokik eta Etxeberriak, guztiek bat egin dute ibilbidea «zoragarria» dela erratean. Hala, urtero irailean

etapa batzuk egitea pentsatua dute. Aurten, adibidez, Asturias aldeko batzuk egin dituzte, eta heldu diren urteetan gainerakoak egitekoak dira. Dena ongi badoa, 2013rako Finisterreko lurmuturrean izanen dira.

egiteko asmoa dugu», dio Ezkurrakoak. Urteroko hitzorduei ere ez diete hutsik egin nahi: urtean behin, ekainean, Pirinioetara eta Done Jakue bideko etapak irailan, Finisterreara ailegatzeko helburuarekin. «Seguraski 2013an ailegatuko gara», erran digu Etxeberriak. Uso jatea ere ohiko zita bihurtu da mendizaleetzat. Berriki egin dute, gainera, aurtengoa: urriaren 14an. Otsandotik abiatuta hiru orduko itzulia

egin eta Lezetako borda bentan bazkaldu zuten.

Sukilbidek ere horrela segitu nahiko luke: «ongi baldin banago behintzat, gustatuko litzaidake». Baita Irtzokik ere: «Ez naiz lehenago bezala ibiltzen, baina izigarri maite dut mendian ibiltzea». Eta gomen dio bat ere luzatu du zugarra: «ibil-tzea arras gauza ederra eta osasuntsua da. Ba-koitzak ahal duen moduan eta ahal duen to-

kian. Denok ibili behar genuke, medikuak agindua emateari esperatu gabe».

Lagunartean gustura ibiltzen badira ere, Etxeberriak badu ber-tze amets bat: «Arkupeak Elkartearekin mendi talde bat sortzea. Fisikoki ongi dagoen jendea dago Arkupeak-en eta horiei ilusioa egin diezaietke». Proposamena airean, denborak erranen du Arkupeak-etik mendi taldea sortzen den ala ez.

DATUA

120

MENDI IRTEERA
baino gehiago egin ditu
taldeak sortu zenetik



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Lehengo lepotik burua

Baserritarren egoera ez da berria, ia ez da gazterik sartzen baserri munduan (nekazaritza-abeltzaintzan), dauden batzuetan beste-ko adina altua da eta beraien krisia aspalditik heldu da. Guk kontsumitzaileok hamaika aldiz aditu dugu bertako baserritarrek egiten duten lana: kalitateko produktuak ekoizteaz gain, gure paraje zoragarri hauek garbiak mantentzen dituzte (sasien *tsunamiari* aurre eginez). Guk nola eskertzen diegu lan guzti hau? Ba...jakiak berdin zaigu non erosi, nondik heldu diren, zein kalitatekoak diren... jakiak erosteko orduan bakarrik sakelari begiratzen diogu, gero dirua kontsumismo itsu batean gastatzeko (kaltea gure osasunari eta kaltea gure baserritarrei eginez). Aski da! Kontsumi ditzagun bertako produktuak, «baserritarra» bakarrik pertsonai historiko batean bilakatzea nahi ez badugu behintzat.

Jakiak erosteko orduan sakelari bakarrik begiratzen diogu, gero dirua kontsumismo itsu batean gastatzeko

Ezpala

Aitor AROTZENA

Udazkenak biziartzten gaitu

Telebista eta ordenagailu pantailek miopizatuak, etxean zokotuak, osasunaren izenean esterilizatuak, gaingabetuak, pasteurizatuak eta usaingabetuak gauden honetan, udazkeneko feriek erakusten digute oraindik behien gorotz eta pix-urrina, aharien ilearen usaina, baratzuri-xorten aztarna, karrika hotzetako lagunarteko solasada nolakoak diren. Udazkenak biziartzten gaitu.

Nabarmentzekoak



Beatriz CORREDOR
Etxebizitza ministroa



Lino INDAKOTXEA
Zubietarra istripuan hila



Pello APEZETXEA
Etxalarko apez

Ez da auzintan Espainia-ko ministrorik agertzen inguru honetara, baina urriaren 19an Elgorriagako Balnearioaren inaugurazioan izan zen Etxebizitzakoa. Joaldunek harritu zuten.

Urriaren 20an lan istripuan hil zen Iraizozko Pienosos Saioa lantegian (Ultzama) 36 urteko zubietarra, bere kamioi azpian harrapatuta. Emaztea eta seme-alaba uzten ditu.

Urriaren 29an aurkeztekoak ditu *Etxalarko etxeen izenak* eta *Etxalarko historia* liburuak. Lehendik ere argitaratuak ditu Usategiei edo Andre Mari elizari buruzko lanak.

Atzera begira → 1995.11.02 / TTIPI-TTAPA 169. zbk



Sara, Urdazubi, Zugarramurdi elkarlanean turismoa indartzeko

Xede horrekin elkartu ziren 1995eko urriaren 18an eta 19an Urdazubiko Menta jatetxean hiru herri-tokoko agintariak eta turismo sektorearekin zerikusia zuten profesionalak. Bertze gauzen artean, hiru herriak bilduko zituen marka turistiko bat sortzeaz, hiru leizeak lotuko dituen bide berri baten egiteaz eta leizeetako gidarien formakuntzaz hitz egin zuten. Jean Aniotzbehare Sarako auzapezak zioenez, «Barandiaranek bere izkribuetan erabiltzen zuen Xareta izena berpiztuko dugu turismo mailan erabiltzeko Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi». Beraz, 14 urte daramazkete lan horretan Xareta inguruan.



Argitaratzailea TtiPI-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttiPI.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Obxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria36€	Ipar Euskal Herria54€	Amerika eta Australia120€
Espainia36€	Europa54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Urriaren 14ko atxiloketen harira

Koldo SAENZ (LAB)

Urriaren 14ean, Garzonek eta Rubalcabak zuzenduriko Euskal Herriaren aurkako bertze erasobaten testigu izan ginen. Zoritxarrez ez da lehen aldia gure herriaren existentziaren ukazioaren gainean euren estrategia eraikitzen dutenek, herri hau erasotzen dutena. Tresnak zaharrak erabiltzen dituzte; Ezker Abertzaleko militanteen jazarpena eta atxilotzea. Hau honela izanik ere, bertze behin ere gertaturiko guztia salatu nahi dugu, eta atxilotuak askatzeko eskatu, 37.000 pertsonen baino gehiagok oihukatu genuen bezala. Sarekada hau burutzea, Donostiako egoitza armen bidez okupatzea, eta atxilotutakoaren artean Rafa Diez sindikatuko idazkari nagusi ohia eta Txelui Moreno kidea egoteak LABen aurkako eraso ere bilakatzen du sarekada hau, estatuak bere errepresioan une oro jauziak emateko prest dagoenaren erakusle. Baina batez ere, independentziarako bidean, urrats berriak ahalbidetu behar dituen strategiaren kontrako eraso da. Euskal Herriak inposaketa eta ukazioa ezagutu ditu urtetan eta ukazioaren ziklo hori da behingoz gainditu behar duguna, aitortzan eta errespetuan oinarritutako ziklo politiko berria irekiz. Horixe dago jokoan eta hori eskatzen du herriak. Ziklo berri hori irekitzeak eskaintza politikoak egitea, akordio politikoak eraikitzea eta apustu politiko garbiak egitea eskatzen du, eta hori eragile politiko, sozial eta sindikal guztion artean egin behar dugu. Horregatik erasotzen du estatuak, aldaketa zapuztu nahi duelako, eta Ezker Abertzaleak egin ditzakeen eskaintza politikoen beldur delako. Gure herriak burujabe izan nahi du eta estatuak beldur dio horri, horregatik kolpatzen digu behin eta berriro. Langileontzako ere berebiziko garrantzia dauka aldaketa politikoak gauzatzeko. Langileok alternatiba estrategiko bat behar dugu enpresarien eta kapitalaren morroi bihurtzen gaituen sistemaren aurrean. Alternatiba hori guk sortu eta eraiki behar dugu eta horretarako ezinbertzekoa da gure etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea errespetatuak izango diren ziklo berria zabaltzea. Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea bermatuko digun marko demokratiko berri bat nahi dugu, mugarik, injerentziarik eta biolentziarik gabeko aldaketa politikoa gauzatzeko aukera izan behar duelako Euskal Herriak. Hori da LABen aburuz eragile politiko eta sozialen artean eraiki behar den eszenatokia, erasoen gainetik eta estatuak paratutako mugen gainetik. Horretarako mobilizazioa eta abertzaleen arteko elkarlana beharrezkoa da, eta adibide garbia Donostiako manifestazioa izan zen. Garaia da bide horretan pausuak emateko inork geldituko ez duen olatua sortzeko. Euskal Herria dugu irabazteko, Euskal Herriak aldaketa!

«Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea bermatuko digun marko demokratiko berri bat nahi dugu»

Eta zu, mutil al zara? (eta bi)

Nora SALBOTX (Agoteak XXI-eko kidea)

Ez dira berriak Baztanen dantzen parte hartzea herritar zenbaiti eragozteko saiakerak. Izan ere 1889an, Bozate auzoko emazteki bat Soka Dantzan parte hartzera zihoala, barride talde batek bertatik igortzeaz gain, txistulariek ere jotzeari uko egin zioten. Tira bira hauen ondorioz, ttuntuneroek horretarako eskubiderik ez zutela ondorioztatu zuten orduko agintariak, musika saioa egiteko kontratatuak ziren heinean, hau bete beharke zutela, beraien esku ez zegoelarik gisa honetako erabakien hartzea, eta herri agintearen penan baizik ezin zitekeela jotzeari utzi. Orduan, mutildantzek funtzio sozial nabarmena betetzen zuten. Ongi jakinen duzuen bezala, baldin eta antzinakoek kontatu dizuetenari hainbertzeko kasu egiten badiozue, herriko alkateak irekitzen zuen borobila, herriko gizasemeek dantzatzen zutelarik haren gibeletik. Kezka garria eta esanguratsua gertatzen zait ikustea kontatu digutena interpretatzen dugunean, nahi ditugun ideiak bertzerik ez ditugula hartzen; honela, emakumeak egun alkate, zinegotzi, kargodun... izan daitezkeela (izan behar direla Berdintasun Legearen arabera) ahantzi egiten zaigu. Beraz, ohiturari atxikitzea bada nahia, zergatik gelditu parte hartzaileen sexu ezaugarriekin eta atzendu, adibidez, dantza honen funtzio soziala? Are gehiago, zergatik «ohitura» ez izanda, onartzen duzue haurrek eta ezkonduak, adibidez, elkarrekin parte hartzea, baldintza bakartzat beraien genitalei buruzko suposizio bat izaki? Ez dut uste ohiturak interpretatzeko erabiltzen duzuen galbahea inondik ere neutroa denik, eta bertze hainbat esparrutan oraindik ere gertatzen den moduan, sistema patriarkalaren eragin zuzena duten erabakiak hartzen dituzueneko ustean nago. Duela 120 urteko gertaerak, agoteen marginazioari dagokionean, gainditutzat eman baditzaiegun ere, emazteki hark bizi izandako diskriminazioa 2009. urtean oraindik jasan izan dugu. Larria da guztiz! Mende bat pasatu denean eta gaurgero ilun-ekilekin etxera erretiratzeko agindurik ez dugunean emakume izate hutsagatik. Larria, bestaz osotasunean gozatu, askatasun osoz bizi eta dibertitzera atera nahi dugunean, bidean oztupoak aurkitzea eta musikarien erabaki diskriminatzaileen ardura, dantza egin nahi duten neskei egotea. Zein neurritan kontzienteki egiten ote duzuen, bakoitzak hausnartu beharke du, eta bere buruari zintzo aitortu, zenbateraino bere neurri-egindako jantzia duen hau.

«Ez dut uste ohiturak interpretatzeko erabiltzen duzuen galbahea inondik ere neutroa denik»

Irakurleak mintzo

Xabier
Azantzarentzat

Xanti BEGIRISTAIN

Gogoratzen dut 2008ko ekainaren 5ean, Larreko izeneko saria eman zidatenean, Xabier Azantza (bide batez, animatzen dut bere euskal abizena, inolako konplexurik gabe zuzendu eta erabil dezala egungo idazkera akademikoaren arabera; ez du deus ere galduko) ere bertan izan zela, eta hitz egitea egokitu zitzaionean, gutxi gorabehera honako hauxe esan zuela nitaz: «Xanti bezalako pertsonak behar ditugu Nafarroan, ausartak, euskara erabiltzeaz gain, gure hizkuntza benetan bultzatu eta aurrera eramaten dutenak».

Xabier Azantzari esan behar diot zeharo ados nagoela bere azalpen horrekin, baina, aldi berean, gaur, 09-10-09an prentsan irakurri dudanean, «diru iturria itxi diete hedabide euskaldunei Nafarroan», «Euskarabidea 240.000 euro ematekoa zen aurrean, deialdia garaiz egin ez eta Gobernuak blokeatu egin ditu dirulaguntzak», «dirulaguntzarik gabe, euskarazko hedabideen etorkizuna kolokan dago», eta abar, Azantza jaunari adierazi eta eskatu behar diot izan dadin minimoki koherentea bere adierazpenekin eta, beraz, izan dadila ausarta, har dezala kuraia, lan egin dezala behar den bezala –horretarako dago

eta postu horretan-, eta bete dezala, esate baterako, aurtengo uzta-tilaren 23an emandako hitza, alegia, 240.000 euroko dirulaguntza Euskarabidearen eskuetan zegoela eta egoera birbideratuko zutela.


Xabier Azantzak horrelakorik ez eginez gero, hobeki luke dimititu eta burua ongi altxatuta duela, Euskarabidea institututik ateratzea, euskaldun zintzo eta leialak bezalaxe, bere ohore guztiarekin.

N-121-A
errepideaZeruneta baserria
Berrizaun (IGANTZI)

Bi urtez eta hilabete batez etsipenez eta isilean milaka kamioien janan-etorria sufritu ondotik, eguraldiaren arabera lohi edo hauts artean, argindarra, telefonoa, edo bidearen mozketa jasa ondotik, honako hau salatu nahi dugu jendaurrean:

1- Baserri ondoko belagiaren egoera, lurren zabortezi bezala erabilia, hesitu gabe eta harriz bete.

2- Bere garaian alegazioak aurkeztu genituen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 70. Zenbakian agertu direnak ere ez dira bete, honako hau agertzen baita 11. puntuak: Proiektuan, kaltetua suertatu den ur-depositua bezalako bertze bat eraikitzea sartua dago, baita tuberi berria egitea ere.



Bota bertsoa

Josu SANJURJO (Lesaka) / Neurria: Habanera

Udazkena eta ehiza

Ikasturte berria ta onddoen itxaropena hostoak doaz erortzen marroiez margotuz dena hegohaize epel-hotza jotzen asten da hurrena usoak datoz pasadan batzuen poza, haien pena basurde asko ta asko baude mendian barrena nahiz denbora hozten doan ezta guretzat problema bitzako momentua ezta izanen azkena neguko atari baino gehiago da udazkena.

Utzirik etxeko sofa utzirik etxeko sala goizeko sei terdietan Patrolen soinu petrala janaz bete kapazoa ezta itxura makala lehengo uso pasa etorri da berehala berrogeitahamar uso ze ikuspegi zabala zerura bota ondoren bertze horrenbertze bala bat bakarrikan bota dut ze zorte txarra aibala ta etxera bueltatu naiz heroia banintz bezala.

Baina gaur egun tuberia zati bat agerian dago eta neguan ura horramatu egiten da.

3- Baserriko teilatuan sortutako kalteak ere konpondu gabe daude, itoxura ugari ditugu eta baldintza hauetan bigarren negu atarian gaudete.

4- Arestian aipatutako Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 12. puntuak agerienez, «kaltetua suertatu den bidea ordezkatzeko bide berri bat eraikitzea proiektatu da, zubibide berriaren azpitik pasatuz eta errepide berriaren paraleloan joanen dena». Hemen dator, basoa gainezka jartzen duen ttantta, izan ere, edozein adjetibo negatibo jartzeko moduko bidaxka egin baitute, arriskutsua, penagarria, sinistezina, erabili ezina, etabar...

ahuntz-bidea gehiago ematen du, kirol eskaladan edo trialean treratzeko egokia. Zerunetako bizilagunok

egin den bidea ikustera gonbidatzen dugu nahi duen guzria eta honek bere ondorioak atararako ditu.

MERKATU TTIKIA

Aldizkaria
+ Internet **8€**
+ telebista

T. 948 635 458
www.ttipi.net

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Pirinioetako Gazta Lehiaketa irabazteak harritu egin gaitu. Hasi berriak gara, iaz aurkeztu ginen lehenbizikoz eta hirugarren gelditu ginen maila berdinean eta aurten urrea eraman dugu (...) Bat-batean etorri zen dena. Gure lanak utzi eta hiru seme-alabekin, abenturari heldu genion. Egun, bi gazta egiten ditugu, *Bertizarana* eta *Kamiku*».

Alberto MIGELTORENA eta Ainara ANSA
Legasako gazta-egileak
D. NOTICIAS, 2009.10.18

«Senpere biziki zabala da. Horretan ageri da Senpereko aberastasuna. Badira 6.000 hektarea pasa, inguruan baditugu 11 herri. Egia erran, herria baino gehiago, herritarrek dira mintzo liburuan. Ez da bakarrik haien bizia, baizik eta aheik nola bizi izan duten. Hemezortzi jende mintzarazi ditut eta haien begirada da. Eta nik uste dut nirea ere badela pixka bat».

Franck DOLOSOR
Senpereko kazetaria
BERRIA, 2009.10.20

11 galdera labur

Erraza da borts herritako apeza izatea?

Bai, ongi organizatzen bazara.
Nahiago izanen zenuke Erribera aldera tokatzea?

Berdin da, Jainkoa eta Eliza zerbitzatzea da garrantzitsuena igortzen nauten lekua edozein dela ere.

Kontent zaude eskualde honetan?

Oso pozik.

Elizako aferetan zer da makurren eramenten duzuna?

Kantua, baina saiatzen naiz hobetzen.

Zer botatzen duzu faltan gehien?

Denborajendekin egoteko.

Zer moduz defenditzen zara euskaraz?

Uste dut uler -

tzen nautela, baina hobetu behar dut.

Bi afizio?
Irakurtzea eta musika entzutea.
40 urterekin egin zinen apez. Berandu?

Lanean eta lagunekin, nere eguneko bizian izan nuen Jainkoaren deia.

Bederatzi senideren artean gazteena. Mimatua izan zara?

Ez, baina anai-arrebek ongi zaindu naute.

Osasunazalea zarela jakin dugu. Egia da?

Bai, oso zalea.

Iruñekoa izanik, zer duzu nahiago, hiri-burua ala herri tiki bat?

Herri tiki bat.



Juan ZABALA → Apez Erratzu, Arizkun, Amaiur, Urdazubi eta Zugarramurdin

sarobe
psicología clínica
C/ de Estegona 25 bajo
31700 Bera (Navarra) 1948 630 899
www.sarobe.net

XIFELL
Aldea 1 BERA
Tfn: 948 631 446

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabiñak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ZJ
Zalain
jateketa - hostala
14 logela bainu
eta TBrekin
Zalain auzoa 1/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

ZOANSA
SEAT
HYUNDAI
Audi
MARKA GUZTEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BERA

UDALA →ERREPIDEAK

Altzate karrikan eta ingurukoetan aparkatzea debekatu egin du Udalak

Zamalanetarako baino ezin izanen da aparkatu

TIPI-TTAPA

Altzaten eta inguruko karrikan aparkatzeko paratutako mugak errespetatzen ez direlako eta «jendearen utzikeria» tar-teko gero eta arazo «lari-riagoak» sortzen direlako, hor aparkatzea debekatu egin du Udalak. Karrikan dauen komertzioetan karga eta deskarga lanak egin behar dituzten kasuak baino ez dira onartuko.

Debeku hori joan den asteaz geroztik dago indarrean, eta erabiltzaileei kotxeak Altzateko plazan, Itzeako aparkalekuan edota Matzadakoan (futbol-zelaiaren gibelean) uzteko gomen-datu die Udalak.

Larungo mendi bizikleta igoera

Lehenbiziko aldiz, Larungo BTT igoera eginen da igande honetan, azaroak 1. 10:00etan abiatuko da igoera lamoteneatik eta 8,9 kilometroko ibilbidea izanen da. Bataz bertzeko malda %9,5ekoa izanen da, eta gehienekoa %29koa.

Izen-ematea egun berean egin beharko da

08:30etik aitzinera, lamotenean, 10 euro ordainduta.

Hiru sari banatuko dira: 200 euro lehenbizikoarentzat, 100 euro bigarrenarentzat eta 50 hirugarrenarentzat.

Patxi Vila berriz txapelketetara

Patxi Vilak aurkeztutako helegitea onartu egin du Kirola Epaitzeko Epaitzeak (TAS) eta 24 hilabetetik 18ra murriztu dio zigorra. Hala, azaroaren 5etik aitzinera lehiatzeko moduan izanen da.

Erraldoi berriak

Erraldoi berriak behar direla ikusi du Kultur Batzordeak, eta herritar guztiei irekitako ideien lehiaketa egitea erabaki du. Nahiz adina lan aurkeztu ahal izanen dira, nahiz eta lau baino ez diren aukeratu.

Lanak aurkezterakoan erraldoi berrietarako pertsonaien marrazkiak erakutsi beharko dira. Gaia librea izanen da, baina pertsonaiek herriarekin duten lotura «berreziki baloratuko» da. Horrekin batera, pertsonaien originaltasuna eta diseinua ere kontuan har-

tuko dira, eta erraldoi bihurtzeko duten erraztasuna ere bai.

AZARORAKO AURKEZTUAK

Lanak azaroaren 6a, ortzirala, baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean.

Gutun-azal itxi batean aurkeztu beharko dira. Lanaren gibeledan aldean goituzen bat idatzi beharko da eta aparte-gutun-azal baten egilearen datuak.

Guztira lau sari egonen dira eta hautatutako bakoitzagatik 100 euro emanen dira.

FLASH

Kafe Antzerki Zikloaren XI. edizioa laster hasiko da

Azaroaren 6an emanen zaio hasiera XI. Kafe Antzerki Zikloari. Hiru ortziraletan hiru antzezlan ikusteko aukera izanen da Euskara Batzordeak antolatuta, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin.

LEHENA ERREKALDE OSTATUAN

Azaroaren 6an *Pantxika Lamur* ikuskizuna eskainiko du Zirika Zirkus Taldeak Errekalde Ostatuan. 22:00etan hasiko da.

BIGARRENA IKUILUN

Gezurrezko printzea izeneko antzezlan izanen da ikusgai azaroaren 13an Ikuilu Ostatuan. Txirene Antzerki Taldeak eskainiko du. 22:00etatik aitzinera izanen da.

HIRUGARRENA XUGA OSTATUAN

Azaroaren 27an, azkenik, *Han izan ezik, hona naiz* ikuskizuna eskainiko du Apurka Antzerki Taldeak. 22:00etatik aitzinera Xuga Ostatuan izanen da.



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

Europatik bisitan Labiaga Ikastolan

Comenius Euro Traditions ekimenaren barne, Alemania, Turkia, Italia eta Estoniako ikasle eta irakasleak bisitan izan dira Labiaga Ikastolan urriaren 13tik 16ra. Ekimen honek Europako hainbat herrialdetako ikasleen artean trukaketak egin eta bertako kultura ezagutzea du helburu, komunikatzeko ingelesa erabiliz. Oraingoan, Labiagakoei egokitu zaie harrera egitea, joan den ikasturtean eurek Italia eta Estoniara joan baitziren. Hainbat ekitaldi egin dituzte, tartean, Gure Txokoa Dantza Taldearen laguntzarekin Kultur Etxean antolatutako dantza saio arrakastatsua.

ERREKALDE
PLAZA KONKURTAK
DANTZAK
KONKURTAK
TFONA: 945 430 259 BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfona: 945 430 735 - 467 466 781

Javier Manterola
Tobako instalazioen
Iturgintza - gasa
kalifikazioa
Tfona: 629449602 • BERA

ERREPIDEAK → N-121A ERABERRITUA

Sunbilla-Bera errepide berria ireki dute zazpi hilabete beranduago

Honela, Sunbilla eta Behobia artean N-121A errepidea erabat berritu dute

TTIPI-TTAPA

N-121A errepidean Igantzi eta Bera arteko zati berria urriaren 23an zabaldu zen. Azken 7.870 metro horiek falta ziren Sunbilla eta Behobia arteko errepide berria oso-osorik irekitzeko eta, zazpi hilabeteko atzerapenarekin bada ere, azkenean ireki zuten. Amiselaietako tunela ere egun berean ireki zuten, arazo geoteknologikoak moldatu eta gero.

Izan ere, Sunbilla eta Etxalar arteko 4.150 metroko tartea eta Etxalar eta Bera arteko 3.720 metrokoa hasiera batean martxoaren 30erako ireki beharrak zituzten. Lanak egiteko arazo batzuk onartu ondotik ekainaren 30era gibelerratu zuten epea eta gero irailaren 30era. Azke-

nean, urriaren 23an ireki zen.

Igantzi eta Etxalar arteko zatiak 4,15 kilometro ditu eta lau zubiderek gurutzatzen da Bidasoa erreka. Basataundiko tunela, 448 metrokoa, ere zati horretan dago eta 21,9 milioi euroko aurrekontua izan du.

Etxalar eta Bera arteko zatiak, berriz, 3,72 kilometro ditu eta bortz zubibide. Amiselaietako tunela, 405 metrokoa, ere egin dute. 21,2 milioi euroko inbertsioa egin da.

Irekiera ekitaldian, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentearekin batera, Laura Alba Herrilan, Garraio eta Komunikabidetakoa kontseilaria eta Begoña Sanzberro, Landa Garapen eta Ingurumenekoa izan ziren, Bortzirriak, Baztan, Malerreka eta Bertizaranako hainbat udal



ARGAZKIA: AITOR A.

Basataundiko tunelean egin zuten errepide berriaren inaugurazio ekitaldia.

agintarirekin batera. Udal agintari horien artean Sunbillakoak falta ziren, herriko sarrera-irteerak moldatzeko egin dituzten alegazioak ez direla kontuan hartu eta protesta gisara.

1.444 METRO GUTTIAGO

Gaur egun Bera ingurutik 8.764 ibilgailu pasatzen dira egunero, horietatik %22,6a astunak. Trafiko hori areagotuko dela uste dute alkateek ere horrek kezka eragiten du, baina Nafarroako Gobernuako presidentearen arabe-

ra, errepide berriak behar guziak aseko ditu. Lehenagoarekin konparatuz, errepide berrian 1.444 metro guttiago egin behar dira Sunbilla eta Bera lotzeko.

Inguruko alkateen eskariari erantzunez, garai bateko trenbidea lehen- gora

bueltatu ez ezik, behin gasaren kanalizazio lanak bukatu ondotik, hobetu ere egingen dutela adierazi zuen Miguel Sanzek.

CLUB Más Xti

Opari Gehiago

Deskontu Gehiago

Promozio Gehiago

Zure erosketengatik Gehiago ematen dizugu

Gehiago Zuregatik Klubaren kide egin zaitez, zuretzat sortutako Nafarroako merkataritza sare berri bat. Abenduaren 14tik aurrera, gure promozio eta oparietaz gozatu.

Informazioa: 948 20 72 46 / info@clubmasporti.com



LESAKA

UDALA → INFORMAZIO PRIBATUA BORTXATZEAGATIK EPAITEGIRA ERAMAN NAHI DUTE

Oninek alkatea salatu du «komunikazioa mozteagatik»

Posta elektronikoaren sarbidea aldatu eta taldearen armairuko giltzak kendu dizkietela adierazi dute

Aitor AROTZENA

Onin Udal Taldeak Juan Fermin Mitxelena alkatea salatu du, «komunikazioa mozteagatik eta informazio pribatua bortxatzeagatik». Deñe Abuin zinegotziak adierazi duenez, «Oninen informazioa eta paperak dituen armairua ireki eta giltzak eraman ditu, beraz, ez dakigu zer ikusi duen, zer eraman duen eta orain ezin dugu armairua itxi, edonoren esku dago gure dokumentazio pribatua». Horretaz gain, posta elektronikoaren sarbiderako pasahitza ere aldatu diotela salatu dute, «komunikazioa moztuz». Abuinek erran duenez, legez, udal talde guzietan leku bat behar dute bere dokumentazioak gordetzeko eta alkateak egin duena «informazio bortxatze delitua da». Foruzaingoa ibili zen joan den astean Herriko Etxean eta Oninek auzia epaile ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte Asanbladaren auzolana Pilarika egunean

Urriaren 12an, Lesakako Gazte Asanbladatik auzolanerako deialdia zabaldu zuten, eta goiz-goiztik hainbat gazte herriko erreka garbitzen ibili ziren. Auzolanerako deialdi hau, urriaren 12an ospatzen den 'Hispanitate Egunari' bizka-rra emateko asmoz zabaldu zuten, «egun horretan, gazte euskaldun bezala ez baitugu deus ospatzeko arrazoirik».

tek erabakitzea nahi du. «Alkate kargua hartu eta 10 egunez hau dena egin du, aski da!» diote haserre Oninetik. «Cornelia Lekuonaren afe- ran ondoriorik gabe atez- ra zen Juan Fermin, bai- na hemen azkenera ar- te ailegatu nahi dugu». Aralarren babesa ere izan du salaketan.

PNVk, aldiz, Oninen akusazioak ukatu ditu eta «txosten teknikoek ez dugula inolako infor- mazioaren usurpaziorik egin erakutsiko dute». Juan Fermin Mitxelena

alkatea Deñe Abuinekin solasten saiaturako zela dio PNVren idatziak, bai- na «honek ukatu egin zuen, afera moldatzeko inolako intentziorik erakutsi gabe eta egoe- ra surrealista bat sor- tuz, gobernu aldaketa baten testuinguruan gertaera normalak dire- nekin». Ordenagailuan nahiz armarioetan da- goen informazioa ez duela inork ikusi eta uki- tu dio alkateak eta ar- marioko giltzak kendu egin dituztela, orain ire- kiak geldituko direlako.

Frontoiko ostatua errentan

Udal pilotalekuko ostatuaren ustiapena bortz urterako hartu na- hi dutenek azaroaren 9ko eguerdiko 12ak ar- teko epea izanen dute bere eskaintza Herriko Etxean aurkezteko. Bal- dintza pleguak udal idazkaritzan daude in- teresatuaren esku. Az- keneko 21 urteotan Be- goña Taberna da osta- tuko arduraduna eta horretan segitzeko as- moa duela adierazi dio TTIPI-TTAPari.



Pertsonaia
Beñat ORONOZ

Nafarroako txapel- dun jubeniletan

Jubenil mailan, Nafa- rroako buruz buruko pilota txapelketaren fi- nala jokatu zen urria- ren 9an Labriten eta Erreka elkartearen ari- den Beñat Oronoz le- sakarrak 18 eta 9 ira- bazi zion Zugarralde- ko Iker Taintari. Burla- takoa 0-3 aitzinetik izan zen, baina bosnako eta zazpinako berdinke- ten ondotik, 17-8 ira- bazten jarri zen Oro- noz, finala eta txape- la erabakiak utziz. Be- re sake gaiztoa bali- atu zuen Oronozek, (hi- rutan, Taintak ez zuen pilota ukiterik ere izan, teniseko ace-a balitz bezala) baita bere es- kuin kolpe indartsua. «Bolez ere ongi mol- datzen naiz -dio Be- ñatek- baina ezker- ra hobetu behar dut». Iaz binakako txapelke- ta irabazi zuen Errioxan, baina hau da orain ar- te lortu duen txapelik handiena. «Orain hasi- den Guillermo Mazo lau t'erdiko txapelke- tan paper ona egin eta ahal bada, finalera ai- legatu nahi nuke».

XATURETXEA
ZABALDIA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

GOZZ-ALDE
JUVENILETAN
T. 948 637 127

IRU BIDE
Enpresa - Auzoak
Barrutia, 3 - Lesaka
Tel. 948 637 127

BERA Zere inguru klase guzietako insektuz (xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...) eta orretai xagutzar garbitu nahi baduzu, deituz Termite eta Pipien tratamenduetan
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel. 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

USATEGIAK → OSPAKIZUNAK

Sarerik hedatu gabe joan da lehenbiziko aldiz Usategietako Igandea

Zalaparta handia Usategietako egoera korapilatsuagatik

Joseba eta Nerea

Usategietako Igandean lehenbizikoz ez zen sarerik hedatu. Azken urteetan izan diren gorabeherak aurtengo sasoi hasieran lehertu ziren ehizturiek erabiltzen dituzten 4. eta 5. postuen aitzinean zuhaitzak moztuak agertu zirenean.

Usazaleek postu horiek kentzea eskatzen dute eta hori aldarrikatzeko, pankarta hedatu zuten Usategietako Igandean: *Etxalarko Usategiak egoera larrian! Errespetua da konponbidea* zioen. Ehizturiek, euren aldetik, ukatu egin dute beraiek direnik mozketa- ren egileak «zuhaitzak moztea gure teilatuaren kontra harriak botatzea» litzatekeela argudiatuz. Arazoa udaletxera era-

man dute orain. Patxiku Irisarri alkateak adierazi digunez, «arazo handia» dute Udalean. Izan ere, jendeak ez badaki ere, «ordenantzarik ez dago Usategietan, baldintza plegua bakarrik dago, hortaz ez dugu eskumenik deus aplikatzeko». Arazoa airean dago eta, itxura guztien arabera, luzerako izanen da.

Kontuak kontu, Usategietako Igandea giro onean ospatu zen, eguraldi ederrarekin. Hala ere, bisitan etorritako kanpotarrak goibel zeuden, sarreak hedatu ez zirenez, ez baitzuten aspaldiko ohitura ikusterik izan.

Arratsaldean, jende franko bildu zen plaza bazterrean eta antolatzaileak gustura agertu ziren egunak izandako erantzunarekin.

16 PATATA TORTILLA

Usategietako Igandean aitzakian, patata tortilla txapelketa egin zuten gazteek, aurtun bos-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Argazkian ageri den pankarta horixe paratu zuten usazaleek Usategietako Igandean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Omenaldi berezia Fede Arribillagari

Lagunak, familiakoak eta herritar parrasta bildu zen urriaren 11n Fede Arribillagari Elizan egin zitzaion omenaldi xumean. Meza elizkizun hunkigarriaren ondotik, aurraskua eskaini zioten berriki hildako palista ezagunaren alargunari eta alabei. Ondotik, oroigarria eman zieten, argazkian ageri den bezala. Errautsak Urtsumiatan bota zituzten. Gorosti bat landatu eta bere izenarekin plaka bat paratu zuten.

garren urtez. 16 hirukotek hartu zuten parte bi mailetan sailkatuta. 16 urte bitartekoetan Beñat Maia, Aitor Danboriena eta Ibai Gallardonek ira-

bazi zuten. Bigarren saria Beñat eta Nerea Iparragirre eta Amaia Zelaiek osaturiko hirukoteak lortu zuten. Maila nagusi- an Egoitz Olagarai, Ene-

ko Arangoa eta Asier Irarzoki izan ziren txapel- dunak. Bigarren saria Amaia Agirre, Jabier Gallarregik eta Olatz Ollok eskuratu zuten.

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE CERTIFICACION DE CALIDAD ISO 9001
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel: 948 627 514
Deñeko Plaza, 10 - LESAKA

BOBEKO

FRANZESIAK, BERRIKIAK
Frans Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentzurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Goya

Alkaiaga, 1 - Tel: 948 630 083

IGANTZI

N-121AKO OBRAK → AUZOTARRAK HASERRE

Berrizaungo Zerunetako bizilagunak kexu N-121Ako lanen ondorioekin

Baserriko teilatua hondatua dago, belagian harriak utzi dituzte eta bide kaxkarra egin diete

TTIPI-TTAPA

Berrizaun auzoko Zerunetako bizilagunek bere kezka eta arrenkura azaldu dute, N-121A errepideko berrikuntza lanen ondorioz baserriko teilatua, ondoko belagia eta bidea gelditu diren egoeragatik.

Sunbilla eta Etxalar arteko zatia ireki duten honetan, arazoa bazter batera utzi baino lehen salaketa egin nahi izan dute, «bi urtez eta hila-bete batez etsipenez eta isilean milaka kamioien

joan-etorria sufritu ondok, eguraldiaren arabera lohi edo hauts artean, argindarra, telefonoa, edo bidea moztuta».

Zerunetakoek baserri ondoko belagiaren egoera ere salatu dute, «lurren zabortezi bezala erabilia, hesitu gabe eta harriz betea». Bere garaian alegazioak aurkeztu ziren eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu direnak ere ez direla bete adierazi dute. Hone-la, kaltetua suertatu den ur-depositua bezalako berte bat eraikitzea eta tuberi berria egitea ageri da proiektuan, baina gaur egun tuberia zati bat agerian dago eta neguan ura hormatu egiten da. Baserriko teiltuan sortutako kalteak ere konpondu gabe daude, «itoxura ugari ditu-



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Belagiaren orde z harriak utzi dituzte Zeruneta atarian. Garai bateko bidexka errepide berrian hiltzen da eta trukean egin dioten «bidea» aski kaxkarra da bigarren argazkian ageri denez.

gu eta baldintza haue-
tan bigarren neguaren
atarian gaude».

BIDEAREN ORDEZ, AHUNTZ-BIDEA

Arestian aipatutako Nafarroako Aldizkari Ofizialean ageri denez, «kaltetua suertatu den bidea ordezkatzeko bide berri bat eginen da, zubibide

berriaren azpitik pasatuz eta errepide berriaren paraleloan joanen dena». Hemen dator, Zerunetako bizilagunen erantetan, «basoa gainezka jartzen duen tiantta, izan ere, bi aitzurkada emanez, edozein adjektibo negatibo jartzeko moduko bidaxka egin baitute, arriskutsua,

penagarria, sinestezina, erabili ezina eta abar... Ahuntz-bidea gehiago ematen du, kirol eskaladan edo trialean trebatzeko egokia».

Zerunetakoek egin den bidea eta gainerako guzia ikustera gonbitea luzatu diete nahi dutenei, bakoitzak bere ondorioak atera ditzan.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

elika
Dietetika... elikadura
Inar Andueza Lasa
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

TATANKA ONENA PREZIORIK HOBERENEAN
STIHL
GASOLINA MOTOZERRAK
199€ tik
hastea

Tatanka zure banatzailea Bortzirak-en. Salmenta, konponketa eta ordezkoko piezaak
Bitoria, 6 - 31700 LESAKA - T. 948 638 299

* Eskaintza honek balio du 2009ko abenduaren 31 arte

UDALA → EUSKARA

Udalaren hizkuntza-politika goraipatu du Kontseiluak

Egindako neurketan 9,09ko nota paratu dio

Nerea ALTZURI

Hego Euskal Herriko ehundik gora udalen hizkuntza-politika neurtu du Kontseiluak eta neurketa lana akautu ondotik, Arantzako Udalaren lana txalotu egin du. Emaitza kuantitatiboegi dagokienez, Otik 10erako tartean, Udalak 9,09ko nota ateratu eta sailkapenean hamargarren postuan dago.

ELEMENTU POSITIBOAK ETA HOBETU BEHARREKOAK

Udalaren hizkuntza-politikaren elementu positiboak eta hobetu beharrekoak ere zehaztu ditu Kontseiluak. Eta ezugarri positiboan artean, Udalak hizkuntza-politikaren arloan bere gain hartu dituen erabaki orokorrak, eta horiek mamitzeko paratu-

tako baliabide eta neurriak goraipatu ditu.

Hobetu beharrekoetan, berriz, aholkularitza juridiko eta teknikoak eskaintzen dioten zerbitzu enpresek Udalarekin izaten dituzten harremanak euskaraz izan ditzaten betereztea, kontratazio irizpideak kasu guzietan paratu eta betereztea, eta azkenik, Udalak lagundutako hedabideen kasuan, euskararen erabilera nolako izan behar duen arautzea nabarmendu ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baserritarren Egunean lehen aldiz ahari lehiaketa eginen da

Ortziral honetan, urriak 30, hasita, igandera bitarte, azaroak 1, luzatuko dira Kultur Egunak eta adin guztietako jendeak izanen du gozatzeko aukera. **Ortziralean**, 20:30ean Marimendi emakume mendizale taldearen aurkezpena Zahar Txokon. *Europako gailurrera espedizioa: Elbrus (5.642)*. 21:30ean bertso afaria Ekaitza Elkartearen, Julio Soto eta Jon Maiarekin. **Larunbatean**, 17:00etan frontoian Tor magoa, 18:00etan otordua, Guraso Elkarteak emana. 20:00etan antzerkia eskolan: Kili-Kolo taldearen *Klowntuz! Menda!* emanaldia. **Igandean**, Baserritarren Eguna. Goizean hasiko da feria frontoian eta horrez gain, 11:00etan ahari lehiaketa eginen da –argazkikoak ez du itxura txarrik!–; 11:30ean Gazta Lehiaketa eta 13:00etan sari banaketa. Eguerdiaren, zere baten zozketa ere eginen da, azokako produktuekin bete.

Urriruko udal informazioa banatu du Udalak

Hilabete honetan ere, Herriko Etxeko berriak etxe-etxe jaso ditugu. Batzuk aipatuko ditugu.

• Urriaren 13an, Goiko Karrikako eta Karrika Nagusiko zolaberritze lanak hasi zituzten. Sasoi enpresak eginen ditu lanak eta oraindik ere hurrengo hilabetea joanen da obrak akautu arte, hasiz geroztik, zortzi astez luzatzea aurrakusi baita. Lanak zatiak eginen dituzte eta guzira 110.613 euroko aurrekontua dute. Espainiako Gobernuak ba-

natutako dirulaguntzarekin osotasunean ordainduko dira.

• Medikuaeren etxea errentan ematearen aldeko emaitzak kontuan hartuz, Udal Taldeak aho batez erabaki du, batetik, epe bat irekitzea herriko jendeak izena eman dezan errentan hartu nahi badu; eta bertetik, hainbat enpresari aurrekontuak eskatzea egin beharreko lanek zerbateko kostua duten jakiteko. Izen-eman nahi duenak ortziralara, urriak 30, bitarte Herriko

Etxean egin behar du, bulegoko ordutegian.

• Larunbata bitarte, su egur loteak eskatzeko epea zabalik dago. Izen-ematea, Herriko Etxean egin behar da eta urtero bezala, 30 euro balio du loteak eta etxe bakoitzeko lote bat eskatzeko aukera izanen da. Iazko loteak bota gabe dituztenek azaroaren 6ra bitarteko epea dute lan hori egiteko. Bota gabe gelditzen diren loteak berriz markatuko dira lote berri bat egiteko.

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnua./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

ERROTAR

harategia

Bertako produktuek

Ezlegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

BORTZIRI

UNSION ANAIK

Sukalderako altzariak

Bereko etxea • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

SUNBILLA

KIROLA → PILOTA TXAPELKETA

Arrutenea Etxea Pilota Txapelketa jokatu da igande honetan

Lau partida jokatu dira 16:30etik aitzinera

Jaione OTXANDORENA

Igande honetan, azaroak 1, jokatu da Arrutenea Etxea Pilota Txapelketaren bigarren edizioa. 16.30ean hasiko da eta lau partida ikusteko aukera izanen dute pilotazaleek Arrutenea Etxeak atzekaldean duen frontoi tiki-an.

Lehenengo partidan, Enaitz Telletxea igantziarra Pello Migelena beratarren kontra ariko da.

Bigarren norgehiagokan, Iker Espelosin sunbildarra eta Enaitz Anso legasarra ariko dira aurrez-aurre.

Hirugarren partidan, Andoni Espelosin sunbildarra Iñaki Azpirotz iruritarraren kontra ariko da.

Eguneko azken partidan, Ander Errandonea beratarra eta Da-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko txapelketako pilotariak eta antolatzaileak.

vid Albisu narbartearrak jokatu dute.

Partidak akitu ondok, sariak banatu dira eta segidan, luntxa izanen da bertara hurbiltzen diren guztientzat.

Ekitaldiz beteriko larunbata

Aitzineko alean iragarri bezala, Ulibeltzak Elkarteak eta herriko dantza taldeak elkarla-

nean egun polita antolatu dute larunbat honetarako, urriak 31. Goizean hasita egun osoan izanen dira ekitaldiak:

- 10:00etatik 13:00etara gaztelu puzgarriak eta haurrentako tailerrak izanen dira plazan.
- 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:00etara azoka ekologikoa ikusteko aukera izango da plazan.

- 18:30ean dantzariak beren saioa eskainiko dute frontoian.
- Gauean, eguna bukatzeko herri afaria egingen da.
- Afalondoan, Agerralde akordeoilariaren eskutik dantzaldia izanen da.

Eguraldi txarra eginenez gero, puzgarriak eta tailerra frontoian egingen dira eta azoka, berriz, Eliz atarian.

ATXILOKETAK

Eraso faxistekin lotura duelakoan herritar bat atxilotua

TTIPI-TTAPA

Urriaren 23ko goizean herritar bat atxilotu zuen Guardia Zibilak Falange y Tradicion taldekoa delakoan. Berekin batera, bertze lau lagun ere atxilotu zituzten, Barañainen, Orkoien eta hemendik kanpo Zaragozan. Azkenaldian, Euskal Herrian falangisten izenean egin diren mehatxu eta pintaketen harira atxilotu zituzten. Euren etxeak ere miatu zituzten.

ESKUALDEAN

Joan den urteko azaroaz geroztik, hainbat izan dira falangisten izenean eskualdean egin diren pintadak. **Donezteben** Islamari buruzko erakusketan; **Amaiurko** oroigarrian; **Lesakan**, **Beran** eta **Arriaizen** heriotz mehatxuak; **Arantza** eta **Igantzia** hartzeko biribilgunean; **Artesiaga**n Frankismoan bortxazko lanak egin zituzten presoaren omenez paratutako eskulturak; **Iruirako** Eliz atarian; **Elgorriaga**ko frontoian eta etxeetan; **Ituren**en Trinitateko ermitan eta enbaltzean; **Aurtitzen** etxe partikular batean...



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUIN

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE

FAXISMOAREN KONTRA → MANIFESTAZIOA

150 lagunek bat egin dute faxismoaren kontrako deiarekin

Sinbolo faxistak kentzeko eskatu dute eskualdeko eragileek

TTIPI-TTAPA

Iaztik honat, eskualdean zein Euskal Herriko bertze herrietan egin diren «eraso faxistak» salatzeke eta sinbolo faxistak kentzea eskatzeko urriaren 10ean egindako manifestazioak 150 lagun inguru bildu zituen.

Eraso hauen aitzinean «erantzun baten beharra» ikusten dutela nabarmentzeaz gain, «pertsona hauek inpunitate osoz jokatzeko dutela» salatu zuten. «Falange eta eskuin muturrekoen eskutik herri honek jasandako sufrimendua ezin dugu ahaztu. Aldiz, bertze egoera batzuetan edozein pintada, argazki, kartel kriminalizatua da».

Horrekin batera, gure herrietan gelditzen diren sinbolo faxistak betiko kentzeko eskatu zuten eskualdeko Gazte Asanbladek, Baztango AEKko irakasleek, LAB sindikatuek, Baztan-Bidasoako Amnistiaren Aldeko Mugimenduek eta Ezker Abertzaleak, Sare Antifaxistak, Eli-



Eraso faxistarik ez lelopean egin zen manifestazioa.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Merkatariak gustura karrikan saltzen

Iragarri bezala, saltzaileak karriketara atera dira urriko bigarren asteburuan, azoka eta hainbat ekitaldi prestatuak baitzituzten Doneztebarrak Merkatarien Elkartekoek, Udalaren, Gas Navarra eta Elgorriagako Balnearioarioaren laguntzarekin. Herriko dendak larunbat eta igandean goiz eta arratsaldez irekiak egoteaz gain, trikitalariak, haurrentzako jolasak eta ipuin kontalariak, taoloak eta denetarik izan zen. Oztopo bakarra eguraldi kaxkarra izan zen, baina halere, gustura gelditu ziren komertziantek parte hartzearekin.

zondo eta Berako Gaztetxeek, Iruñerriko Ekin -

tza Antifaxistak, Bidean, MOC, Ahaztuak eta

Arrosa Beltza erakundeek.



Pertsonaia
Javier MARIEZKURRENA

Espainiako txapelketan bigarren

Javier Mariezkurrena kamioi gidariak bigarren postua lortu du Espainiako txapelketan eta hamahirugarrena Europakoan. Urriko lehen asteburuan denboraldiko azken karrerak egin zituen Jaraman, Madril, eta emaitza ikusgarriak lortu zituen. Larunbatean, bilasterketa ikusgarriren ondoren zortzigarren postua lortu zuen bietan. Beraz, lau puntu Europako txapelketarako. Igandean, lehen karrean bederatzigarren postura arte erremonatu zuen, baina hirugarren itzulian lasterketa utzi behar izan zuen. Halere, hondarrek lasterketarako moldatzeko aukera izan zuten Ederki eskuderiako mekanikoek. Aitzineko karrera akitu ez zuenez, hogeita zortzigarren postutik abiatu behar izan zuen Mariezkurrenak azkenekoan, baina ikusleak gozarazi zuten lan bikain baten ondoren, hamargarren izan zen. Denboraldi osoan izan duten arazoei aurre egin eta ia baino emaitza hobek lortu dituzte.

larreta
IGELTSU PROIEKTATUA
LARBILA - BERRA
Gorka Arriola 677.225.514 | Juanan Saralea 637.921.299

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut.
Sakelekoak: 637 836 073 - LESAKA

AURTITZ

BESTAK → SANMARTINAK AURTITZEN AZAROAREN 5ETIK 9RA ETA 11N

Erasun, Arrospide, Oihan Larretxea eta Olasagastiren arteko lehia ortziralean

Azaroaren 5
ilunabarrean
botako da
txupinazoa

ORTZEGUNA 5 Besten hasiera

20:00etan txupinazoa.
Ondotik herriko txistulariekin eta kalejira. **22:00 etan** mus txapelketa.

ORTZIRALA 6 Herritarren Eguna

10:00etan argisoinuak herriko txistulariekin eta trikitilariekin. **12:00etan** aizkora apustua: Ander Erasun, Angel Arrospide, Oihan Larretxea eta Joxe Mari Olasagastiren artean. **14:00etan** herri bazkaria Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. **JOXE ANJEL** akordeoilaria alaituko du bazkalondoa. **Arratsaldean** eta **gauz** dantzaldia **GABEZIN** taldearekin.

LARUNBATA 7

10:00etan argisoinuak herriko txistulariekin. **12:00etan** pilota partidak. **17:00etan** trikitixa jaialdia. **Gauz** dantzaldia **LAIOTZ** taldearekin.

IGANDEA 8

10:00etan argisoinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** Iturengo dantzarien saioa. **18:00etan** Juantxo el Charro mariatxia eta bere dantzariak. **Ondotik** Oihana Elizalde eta Oihana Mindegia trikitilariekin dantzaldia.

ASTEAZKENA 11 San Martin Eguna

10:00etan argisoinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa Aurtitzko Ostatuan. **Arratsaldean** haurrentzako jokoak. **18:00etan** postre lehiaketa Elkartearen, trikitilariek alaituta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Juantxo el Charro mariatxiak eta bere dantzariak igande arratsaldean emanaldia eskainiko dute.

ZUBIONDO
Jatetxea
Sagardotegia jatetxean
Alasta karrika
HERA NAFARROA

AURTITZKO OSTATUA
Sagardotegiko menua
Menu bereziak • Bokatak • Plater konbinatuak
Oritzal gauzen zopak emanen dira
ORITZAL GAUEN ZOPAK EMANEN DIRA
ORITZAL GAUEN ZOPAK EMANEN DIRA
AURTITZ • Tel: 948 451 625
www.aurtitzko-ostatua.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

KULTURA → FRANTZIARA BIDAIA

Joaldunak eta dantzariak Britainiara joanen dira azaroaren 6tik 8ra

Quimper herrian euren saioak eskainiko dituzte

Arkaitz MINDEGIA

Iturengo joaldunak eta dantzariak azkenaldian ez daude geldirik egoteko. Azaroaren lehenengo asteburuan, 6, 7 eta 8an, Britainiara doaz, Quimper herriara, hain zuzen. Han liburaren azoka ospatzekoa da eta joaldunak herrian barna ibiliko dira eta dantzariak bi emanaldi eskainiko dituzte.

Lan berriak

Udalak azkeneko bost hilabete hauetan langabezian zeuden bi herritar kontratatu zituen herriko lanetan aritzeko. Hainbat lan egiten ibili dira bi langile hauek, hala nola, karrikak garbitzen, plaza pintatzen, eskola barreneatik pintatzen... Eta egin duten azkeneko lana Aurtizko frontoia pintatzea izan da.

Asteburu Kulturalari begira

Joaldunen Eguna prestatu eta pasatu ondotik, Ibintza Kultur Tal-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela hiru urte Bartzelonan izan ziren joaldunak eta dantzariak.

dea Asteburu Kulturala antolatzen ari da orain burubelarri.

Egunak finkatu dituzte dagoeneko, eta aurtengoan abenduaren 4tik 6ra izanen dira. Ohiko programazioa izanen da, baina seguruenik berrikuntza batzuk ere sartuko dituzte.

TALDERA SARTZEKO GONBIDAPENA

Ibintza Kultur Taldeak herritarrei deialdia luzatu die, Kultur Taldeko kide izan nahi duten guztiek ateak irekiak ditzutela errateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pintada faxista Aurtitzen

Eskualdeko bertze herri aunitzetan bezala, Aurtitzen ere pintadak agertu dira. Etxe partikular batean goiko irudian ageri den esbastika hori margotu zuten. Argazkia pintada ezabatu aitzinetik ateratakoa da.

FOTODEPILAZIO ESKAINTZA HANDIA
KALITATE HOBERENA ESKAINTZEN DIZUGU, AZKEN TEKNOLOGIAREKIN ETA PREZIORIK ONENEAN.
ZATOZ ETA EZAGUTU GAITZAZU

6 saioko bonoetan %5eko deskontuak

ZONAK	Saioa	6 saio %5	6saio %30	Saioa %30
Besapeak	45€	256€	192€	32€
Izterondoak	55€	313€	235€	39€
Hanka erdiak	110€	627€	470€	78€
Hanka osoak	140€	798€	599€	100€

AQUABELLE Salud y Belleza. Gipuzkoa Etor. 18 · IRUN · Tel. 943 101 293

Lagun batekin etorritz gero sesioetan **%30eko** deskontuak

ELGORRIAGA

BAINUETXEA → INAUGURAZIO OFIZIALA

Espainia eta Nafarroako politikoekin inauguratu dute ofizialki bainuetxea

Etxebizitza ministroa, Sanz presidentea eta lau kontseilari etorri dira

TTIPI-TTAPA

Duela hiru hilabetetik lanean ari bada ere, urriaren 19an ofizialki zabaldu zituen ateak bainuetxeak, eta hainbat ordezkari politiko bildu ziren. Herriko eta inguruko alkate eta zinegotziekin batera, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Beatriz Corredor, Espainiako Gobernuko Etxebizitza ministroa etorri ziren, baita Nafarroako hainbat kontseilari ere: Amelia Salanueva Toki Administrazio Departamentuko a, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumenekoa, Maria Isabel García Malo Gizarte Gai, Familia, Gaztedia eta Kiroletakoa eta Kultura eta Turismo Juan Ramon Corpas.

Lehenik, Zubietako joaldunek beraien harat honatak egin zituzten bainuetxearen atarian, nolabaiteko bedeinkapena eman ez eraikein berriari. Aurrekoa ere dantzatu zuten eta ordezkari politikoen solasaldiak etorri ziren ondotik. Eta Mikel Biain apozak, putzu




ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Espainiako eta Nafarroako gobernuetako ordezkariak bainuetxeekin batera.

nagusiko ur gazia erabiliz bedeinkapena eman zion instalazioari.

10,2 MILIOI EUROKO INBERTSIOA

6.000 metro koadro inguru dituen balnearioa egiteko 10,2 milioi euroko inbertsioa egin da; Etxebizitza Ministerioak kasik 3 milioi euro jarri ditu, moldaketa lanen %40,6a. Nafarroako Gobernuak 1.933.428 euro ordaindu ditu, 2004, 2005 eta 2006ko aurrekontuetan. Gainerakoa, Udalak eta Elgorriagako Balnearioa elkarteek ordaindu dute. Izan ere, Sustapen Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren 1999ko elkarlanaren ondorio da eraikein berria.



Pertsonaia

Martin OTXANDORENA

1,280 kiloko onddoa esku artean

Onddozaleen herria da Elgorriaga, baita onddo tokia ere. Eta onddoen denboraldia onaitzen ari bada ere, seguraski guttik eduki izanen du 1,280 kiloko onddo bat esku artean, Martin Otxandorenak bezala.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pintada faxistak

Pintada faxista eta arrazista gehiago egin dituzte eskualdean. Azkenak Aurtitzen eta Elgorriagan. Bigarren honetan, frontoian eta zenbait etxetan agertu dira erasoak. Frontoian, erraterako, *Muerte moros, judios, sudakas y mangantes* idatzi zuten. Urriaren 3tik 4rako arratsean egin zituzten erasoak, eta Baztan-Bidasoa Antifaxistaren arabera, erabilitako «lelo motengatik» Falange y Tradicion taldeak egindakoak izan daitezke. Joan den hilabetean, talde honek bere gain hartu zituen eskualdean eta hemendik kanpo egindako hainbat eraso.

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. · koloretan bi aldeetatik · Distira akabera

	100	200	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	85€	110€	150€

Kulturikari Andutzeta, 12 - 31760 Ebalzar - Tel 948 635 458 - kulturikari@ttiipi.net



UDALA → HERRIKO OSTATUA

Herriko Ostatua errentan hartzeko deialdia egin du Udalak

Baldintzak Herriko Etxean daude eskura

Fermin ETXEKOLONEA

Urtebete baino gutxiago pasatu da Udalak Herriko Ostatua errentan hartzeko azken lehiaketa egin zuenetik. Urte hasieran izan zen, eta hirugarren deialdiaren ondotik, maiztaren 1ean hasi ziren lanean arduradun berriak. Baina bost hilabete beranduago, uzteko asmoa dutela adierazi diote Udalari, eta beraz, honek berriz egin behar izan du eskaintza.

Aurrerago emanen ditugu eskaintzaren inguruko xehetasunak, baina bitartean, aipatu, ostalua, hostala eta jantxe zerbitzua errentan

har daitezkeela, eta horrekin batera, bertan bizitzeko aukera ere izanen duela arduradunak.

Interesatuak eta baldintzak zehatz jakin nahi dituenak Herriko Etxera jo dezake.

Eskulan ikastaroa abian

Hilabete hasieraz geroztik, dozena bat emakumeren bilgune bihurtu da eskolako bigarren solairua. Eskulanak egiten ikasteko biltzen dira Ituren, Aurtitz eta Zubietako emakumeak asteazken arratsaldero eta oso lan politak egiten dituzte.

Maiatzera bitarte segituko dute ikastaroarekin. Halako lanak egin ondotik, ea animatzen diren herritarren aurre-



an erakusketaren bat egitera.

Gonbidapena egina dago.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udalak urtarilean egin zuen Herriko Ostatua errentan hartzeko deialdia, baina orain arte lanean aritu direnek uztea erabaki dute eta berriz zabaldu du lehiaketa.

FLASH

Tristura handia eragin du Lino Indakoetxearen heriotzak

Lur jota utzi du herria Lino Indakoetxea Ariztegi 36 urteko gaztearen heriotzak. Ustekabeko ezbehar larria urriaren 20an gertatu zen Iraizotzen (Ultzama), lanean ari zela.

Goian Bego.

ITUREN *Zure ametsa biltzen*

30 ETXEBIZITZA LIBRE ETA VPO-AK **VIVIENDAS LIBRES Y V.P.O.**

Elgorriagako baimuetxe berriaren ondoan

Tel. 948 580 344
www.lindutx.com

Zure etxea, zure bizitza. Te usatu, te erabili

Informa zaituz Baztan eta Ultzamako promozioetat

MALERREKA/BERTIZARANA

GIZARTEA → INMIGRAZIO PLANA

Ludoteka ibiltaria egingen da Eratsun, Zubietan, Narbarte, Sunbilla eta Donezteben

6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago

TTIPI-TTAPA

Munduari bira Male-
rreka eta Bertizaranan
zehar. Lelo horrekin eki-
men berria abiatuko du
Malerrekako Mankomu-
nitateak Inmigrazio Pla-
naren barne. 6 eta 12
urte bitarteko haurren-
tzako ludoteka paratu-
ko du martxan bortz he-
rritan: **Eratsunen, Zu-
bietan, Narbarten,
Sunbillan** eta **Donezte-
ben**.

Hiru orduko saioak
eginen dira heldu diren
larunbatetan, 10:00eta-
tik 13:00etara, eta azke-
na, Kultur Arteko Topa-
keta izanen da.

LARUNBATEAN ERATSUNEN

Lehenbiziko saioa
Eratsunen egingen da,
larunbat honetan, urri-
ak 31. Bigarrena **Zubie-
tan** azaroaren 7an; hi-
rugarrena **Narbarten**
azaroaren 14an; lauga-
rrena **Sunbillan** azaroa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ludoteka ibiltaria iragartzen duen kartela.

ren 21ean eta **Donezte-
ben** hurrengoan, azaroa-
ren 28an. Azken besta
non eta noiz izanen den
oraindik ez dago zehaz-
tua.

Herri bakoitzean
kontinente bateko bitxi-
keriak, jolasak eta kan-

tak landuko dira, eta
azken bestan, ginkana
erraldoia egingen da. He-
rri bakoitzeko ludote-
kan parte hartu duten
haurrek, begiralean la-
guntzarekin, gainerako
haurrei ikasitako jolas-
bat erakutsiko diete.

PUZZLE ERRALDOIA EGINEN DUTE

Bi hezitzailek hartu-
ko dute ludoteka ibiltari-
riaren ardura, eta hau-
rrak taldeka banatuko
dira. Bakoitza kontinen-
te batean kokatuko da,
eta kontinentez konti-
nente munduari bira
emanen diete guztiek.

Kontinentearen irudi
ttiki bat izanen du nes-
ka-mutiko bakoitzak
bizkarrean, eta azkene-
an, denen artean mundu-
ko puzzle erraldoia
eraikiko dute.

PLANGINTZA

Hau izanen da ludo-
teka ibiltzari honen egi-
taraua. 10:00etatik
10:20ra haurren harre-
ra; 10:20tik 11:00etara
ongi etorria; 11:00etan
hamaiketako eta on-
dotik tailerrak –eskula-
nak, sukaldaritza...-.
12:00etatik 13:00etara
jolasak egingen dira.

HELBURUAK

Hainbat helburu di-
tu ekimen honek. Alde
batetik, jatorri desber-
dinetako haur eta gura-
soen arteko harrema-

SEI SAIO HERRIZ HERRI

Hiru orduko sei saio
eginen dira: **Eratsun-
en larunbat honetan;**
**Zubietan azaroa-
ren 7an;** **Narbarten**
azaroaren 14an;
Sunbillan azaroaren
**21ean eta Donezte-
ben azaroaren 28an.**
Horien ondotik Kultur
Arteko Topaketa ere
eginen da, oraindik
zehaztua ez dagoen
tokian eta egunean.

nak sustatu nahi dira,
eta gisa berean, kultu-
rarteko hezkuntza sa-
kondu nahi da bertze
herrialdeetako ohiturak,
ezaugarriak, jolasak,
kantak... ezagutzuz. Bi-
de batez, bertzelako kul-
turak ezagutzeko inte-
resa piztu nahi da hau-
rrenan, migrazioa
landuz eta giro atsegi-
nean elkarrekin jolase-
an ongi pasatuz. Aisial-
dian euskararen erabi-
lera bultzatzea ere ba-
da asmoa, eta horrela,
haur etorkinak euska-
rara hurbiltzea.

**COLCHONES
ATSEDEN**

KOLTXOI FABRIKA

ATSEDEN
Zure ametsen fabrika

ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN

Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

BASIC PLANA: Koltxoa + burukoa: **jaso zure oparia**

MEDIUM PLANA: Koltxoa + somierra + burukoa: **%5eko deskontua**

PLATINUM PLANA: Koltxoa + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoa: **%10eko deskontua**

GOLD PLANA: Viscolaxtic Koltxoa + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoa + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina

www.colchonesatseden.com

Aprobetxatu promozioa

Eta hau
guztia gure botiko
prezioetan,
lantegiko
prezioetan

Inñua-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Biltzarreko kalea • 948 346 006 • BURLATA • Inulanea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

GAZTA LEHIAKETA → LA SEU D'URGELL HERRIAN

Pirinioetako Gazta Lehiaketa irabazi du Legasako Ardiarana gaztandegiak

Urrezko diploma eta 600 euro hartu dituzte

TTIPI-TTAPA

Pirinioetako Gazta Lehiaketako lehenbiziko saria Legasara etorri da. Ardiarana gaztandegiko Alberto Migeltorena eta Ainara Ansa senar-emazteentzat izan baita.

Urriaren 17an Lleida-ko La Seu D'Urgell herrian jokatu zen txapelketaren 15. edizioa, eta joan den urtean lortutako hirugarren postua hobetzea lortu zuten legasarrekin, garaile atera baitziren. *Bertizarana* izenarekin egiten duten gazta aurkeztu zuten lehiaketara, eta bertze 99 gaztaren artean eurena izan zen aukeratua.

Lehiaketa irabazita, urrezko diploma eta 600 euro hartu zituzten legasarrekin, eta noski, epai-mahaiarengandik hitz onak ere bai.

BORTZ URTEKO IBILBIDEA

Duela bortz urte hasi ziren gaztak egin eta horretara dedikatzen Migeltorena eta Ansa eta gaur egun, *Bertizarana* eta *Kamiku* izenarekin egiten dute gazta.

"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua

NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK

EUREN NOMINA RURAL KUTXAN ROBRATZEN DUTEN GUZTIEK BARDITUZTE JADA BALDINTZA FINANTZARIO BAKAR HAUEK.

- Nomina Kontua komisiorik gabe.
- Nomina-aurerakina dohainik.
- Nomina malleus korriturik gabe.
- Zordunketa eta kreditu txartelak jaukipen kuotarik gabe eta urteko kuota %100 eta %50 arteko beharpenak humenez hurren erosketetan egindako erabilpen mailaren arabera.
- % 10eko deskontua Etxebizitza, Bizitza eta Istripu Asaguruetan.
- Zordunketa bidezko diru-ateratzeak dohainik eta mugagabeak Nafarroatik kanpo edozein erakunderen Served kutxazinetan.
- Doako kudeaketa, errezibutak zure kontuan zorduntzeko.

HELBIDERATU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAUETAZ.

DEN-DENA MEREZI DUZU

nre aukera

Merezi duzulako.

www.ttipi-ttapa.com
Tel: 948 45 00 14

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14
web: www.beintzakostatua.com
www.urbizargaztandegia.com
11701 BEINTZA LABARRIN

OITZ

UDALA → HIRIGINTZA

Ur depositu berria abendu hasierarako martxan egotea espero du Udalak

Presioa erregulatzeko balbulak paratzen ari dira orain

TTIPI-TTAPA

Urtea akitu baino lehenagotik ur depositu berriak hornituko ditu herritarrak. Azken hilabete hauetan, lanak egiten aritu den Sasoi enpresari gutti gelditzen zaio akitzeko. Alberto San Migel alkateak aipatu digunez, «etxe etxe presioa erregulatzeko balbulak paratzen ari dira orain».

Obra guztia abendu hasierarako eginga izanen delakoan dago alkatea eta hortik aitzinera, berria erabiliko da. Zaharra, berriz, erreser-

barako geldituko da.

Bere garaian, aipatu bezala, 128.487 euro gosta da depositu berria eraikitzea, eta Nafarroako Gobernuak 60.012 euro eman ditu.

Hirigintza Plana egiten hasiak

Udalaren eta arkitekto arduradunen lehenbiziko bilerak egin ondotik, hasi dira Hirigintza Plana egiten.

Aipatu, Udalak Hirigintza Plana egiteko deialdia egin zuenean, sei arkitekto talde auketu zirela, eta guztietan Xabier Lopez de Uralderi esleitu ziola lana. Honek bi urte inguru beharko ditu plan berria egiteko. Kasu honetan, Nafarroako Gobernuaren laguntza %80 ingurukoa izanen da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Oizko taldea jaun eta jabe laxoan

Erraz nagusitu zen Oizko taldea urriaren 17an plazan jokatu zen Malerrekako Gazteen Laxoa Txapelketako finalean. 9-0eko markagailuarekin jaun eta jabe izan zen herriko taldea. Ez zen partida ikusgarria izan, Doneztebeko taldeari errazegi irabazi ziotela ere erran liteke, baina txapelkunak gelditu ziren garaipenarekin. Andoni Saldias, Lander Mindegia, Laurendi Zelaieta eta Ibai Iribarren izan ziren Oizko taldean jokatu zutenak. Eta Doneztebeko taldean Unai Sapuppo, Josu Inda, Joseba Grazenea eta Aurelio Bertiz. Argazkia ez da oraingoa, ez Oizkoa ere, baina eskualdean gaztetxoek duten afizioaren erakusle da.



EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre
Zuk nahi dituzun bezala pertsonalizatuak

Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR • Tel. 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net

Eskatu informazioa

150€

LEURTZA ABENTURA

Puzgariak festetarako
Segway - BTT
LASER paintball
Despedidak
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97
mug. 620 37 96 42
www.leurtza.com

Martiko
For. Zaram, s/n.
31760 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Historiatu eduzak eta arinak

DENDA
ORDUTEGIA
ASTILLENETIK
ORTZALERA

8.30etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

Martikorekin zu zeu sukaldari.

UDAZKENA → EHIZA GARAIA

Agudo eta ongi, usoa hegaka

Goizean goiz jaikita eta eskopeta eta gosaria hartuta hor joan dira egun hauetan bakoitza bere tokira

Markel eta Eneko

Esamoldeak dioenez, gauzak ongi egiteko, patxadan egin behar omen dute.

Usoak, ordea, ongi egiten du, eta agudo, hegaka. Beharko, ehizturien mehatxutik eskapo. Gaztainazitua urriroa edo urria, edozein modutara esanda ere, hauxe dugu ehiztu-

riak beren onetik atereak ibiltzen diren garaia.

Haizegoa badabil, tutuluena ere argia hasi baino lehen, jaiki eta hantxe abiatzen da bere eskopeta hartuta makarrak kentzeko astirik gabe. Batzuk Pallura, besteak Barbara aldera, Latarrira, Kurritxikara, Alkaxurira, Aieletara... usoa heldu den eguna bada, denak harrotuak.

Postuak ere, aurretik arbaztekin ongi gerizatuak. Hantxe egonen dira, begiak gorri-gorri, erne, heldu denari, danba!, tiratzeko prest. Nekeak jotzearekin, ilunabarrean, etxera. Eta esku hutsik



ARGAZKIA: MARKEL ETA ENEKO

Ehiza postu batzuek altuera galanta dute, argazkiko honek bezala.

asko, zakurra baino tristeago. Bi bota dituenak, berriz, lau bota dituela esan eta aurrera!

EHIZTARIAK NON?

Usoen sasoia ailegata, Pallu, Barbara, Latarri, Kurritxika, Alkaxuri eta Aieleta aldean dabilta azkenaldian batera eta bestera ehizturiak.

Xalbadorrek bertso batean aipatzen duen bezala:

*...gezurzonbait kondatuz,
egi eskasian,
hola hauteman ditunik ene bizian;
zerbait egin badute,
noizpait ihizian,
errepikatzen dute bizitza guzian.*

Kontuak kontu, garbi dago behinik behin, hemen ehizak jendea mugitzen duela. Eta gu-

re mahaietan otordu goxo askiak egiteko bidea paratu ere bai!

Badugu bizilagun berria

Izan berria dute familia Ibanek eta Maiderrek. Joan den hilean jaiotzen Garikoitz, beren lehenbiziko haurra. Zorionak eta benjondaiela!

Aipatu, azkenik, herriak momentu honetan 129 biztanle dituela.

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETEE

Gure gastronomia dastatu
Gure masajeak gozatu
Itxaso hilean bezala flotatu

Estresa kentzeko ez zara urrutiti joan behar,
gure prezioak eta bonuak kontsultatu

- Igerileku Mineromedizinala
- Saunak eta kontrasteko dutxak
- Flotarium
- Gimnasioa

Programa indibiduala: 6 saio / 72€
Birendako programa: 12 saio / 120€

Baliozkotasuna: 09/10/01-09/12/17ra. Zubiak eta jaiegunak izan ezik. 90 minutuko saioak. 17:00-20:00

Erreserbak: 948 456 045 • reservas@balnearioelgorriaga.com
www.balnearioelgorriaga.com

GOIZUETA

OSASUN ZERBITZUA → LARRIALDIETAKO ZERBITZUA

Asteburuetakoko mediku zerbitzua hilabete barru jarriko da martxan

Astelehenetik ostiralerako larrialdi kasuak Joxe Jabier Etxeberriak artatzen ditu

TTIPI-TTAPA

Kostata baina badi-rudi larrialdietako zerbitzua lehengora itzuli-ko dela, eta astelehe- netik igandera, egune-ko 24 ordutan urgentzia kasuak herrian artatu-ko direla. Asetarteko zerbitzua da momentuz martxan dagoena, bai- na asteburuetakoa ere luze gabe eskainiko da.

ETXEBERRIA LANEAN

Urriaren 19az geroztik, astelehenetik ostira- lera, 15:00etatik 08:00- etarako zerbitzua Joxe Jabier Etxeberria herri- tarraren esku dago. Le- hen ere hainbat estual- ditatik atera izan ditu herritarrak Etxeberriak.

Asteburuetan ariko den medikuaren kontra- tua ere egina omen da-

go. Hala adierazi zuen behintzat Maria Kutz Osasun kontseilariak urriaren 19an Goizueta, Arano, Leitza eta Are- soko alkateekin eginda- ko bileran. Mieljoxe al- kateak TTIPI-TTAPAri ja- kinarazi dionez, «hila- bete batera» hasiko da lanean. Gaineratu due- nez, «aspaldi espezia-

litate honetan lanean ari- tu gabea zen, eta orain eguneratzen ari da». Osasunbideak ez du ja- kinarazi nor den biga- rren medikua hori, bai- na kontratatua da.

Dena den, azkenean Osasunbidetik etorriko da medikua, eta ez ha- sieran iragarri zuten be- zala, Osakidetzatik.

«Badirudi arazo batzuk izan direla», dio Leku- nak, eta horregatik ber- tan behera gelditu da Osakidetzako medikua- ren kontratazioa.

HIRUGARREN BAT ERE BAI

Bi mediku hauen jai egunak edo bajak es- taltzeko, hirugarren me- diku bat ere etorriko

omen da. Baina hori, abendu aldera izanen da. Hartara, mediku zer- bitzua %100ean ber- matua geldituko da.

Aterpeko obrak

Azaro erdialdera ha- siko dira Zubi Muxuko obrak. Eta lanak zeinek egingen dituen ere era- baki du Udalak. Deial- dira aurkeztutako 11 enpresen artean, Lekun- berriko Gañarbe enpre- sari esleitu dizkio obrak.

470.024,23 euroko aurrekontua du (BEZ barne) eta hamar hila- beteko epea izanen du enpresak lanak buka- tzeko.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Bidegorria paseatzeko

Probetxugarria izaten ari da Olaberriko zubitik Madaleneko zubira egin den bidegorria. Duela hilabete inguru bukatu ziren obrak eta herritar asko ibiltzen da hortik paseatzen, tartean argazkiko hirukotea.

DATUA

11

ENPRESA

aurkeztu ziren Zubi Muxuko obrak egiteko Udalak egindako deialdian eta guztien artean Gañarberena aukeratu du.

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

behetik
Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...

ttipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK - ZOZKETAK - ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketetan
parte hartzeko deitu **948 63 54 58ra**.
Astehenetik ostiratera 09:00 - 18:00.

ZOZKETAK



LIBURUAK
Baizabal Argitaletxea
www.baizabal.com



MARTIKO PRODUKTUAK
Martiko
www.martiko.com



CD + CD-ROMa
Urbintza eskola
www.urbintza.org



LIBURUA + DVD + PINak
Peritz, Perrotx eta Marinotzeta
www.katiporreta.com



KAMISETA 1
Onddo ta pante
www.onddotaguntzi.com



JANTZIA
Txapela buruan
www.txapelaburuan.com

SARIDUNAK

- ttipi txartela
- TORTOXAK CD-ROM (Urbintza eskola)
Josune Etxebarria (Gurbilla)
 - BIDE ERTZEAN (Kamiseta + CDa)
Pilar Paborista (Bera)
 - SORGINAK MAHAI-JOLASA (Urbintza eskola)
Amaia Aramburu (Gurbilla)
 - LIBURUAK (Elkar)
M^a Dolores Bano (Elizondot)
 - KAMISETAK (Onddoart)
Leire Purba (Lesaka)
 - KAMISETA (Txapela Buruan)
Uxo Vicente (Gurbilla)
 - KAMISETA (Txapela Buruan)
Maitx Burburua (Eratzu)
 - LIBURUA (Mendukiloko leiznak)
Luzpe Musika (Lesaka)
 - 3 SARRERA bikaitz (Mendukiloko leiznak)
Maidor Petroyena (Gurbilla)
Irene Arrotano (Iurita)
Nodoi Aizoa (Iñuri)
 - 2 SARRERA (Camelot Park)
Aranba Diaz (Zubieta)

ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE



Artic
2 SARRERA



AQUARIUM
2 SARRERA

Zozketari parte hartzeko agur: saridunak. Aizurri lehen. Irabazleak izateko saridunak 10ko probaketa erabakituko dira.
Mugaketa koron 1.204€ BEZ gabe. Zure izena eta izen-deitura bidaltzen gogoko dira saridunak.
Izen berri edukitzean berriz saridun. Zuzeneko eta inbentarioaren bidez agertu deitu 948 63 54 58ra.

DESKONTUAK

Agara
kirolak
%5 kirol artikuluetan

Amaia
buzi-eta eskuma-erretza
%5 kosmetikan %10 oparitan

MASTER
ALTZURI
%5 etxe-irratietan

BERAUTO
%5 errekarbitzetan

bixkiak
%10eko deskontua

LEITZA

UDALA → EUSKARA

Hizkuntza-politikaren neurketan puntuaziorik altuena jaso du Udalak

Kontseiluak ehundik gora udalek euskaraz egiten duten lana aztertu du

TTIPI-TTAPA

Kontseiluak Udalaren hizkuntza-politika neurtu du eta emaitza onak eskuratu ditu. Emaitza kuantitatiboetaz dagokienez, Oti 10erako tartean, Udalak 9,63ko nota ateratu du, eta lehenbiziko postuan dago Hego Euskal Herrian neurtutako ehundik gora udalen sailkapenean.

Emaitza poztekoa bada ere, hobetu beharrekoak ere zehaztu dizkio Kontseiluak Udalari: «kaleetako izenetan euskaraz behar duen lekua izatea eta Udalari aholkularitza juridiko eta tekniko eskaintzen dioten zerbitzu enpresek Udalarekin


izaten dituzten harremanak euskaraz izatea».

Zinema denboraldida abian

Zinemak berri zabaldu ditu ateak, eta ostiral honetatik aurrera hainbat film ikusteko aukera izanen da.

Ostiralean, urriak 30, eta igandean, azaroak 1, Tarsem Singh zuzendariaren *The Fall*. *El sueño de Alejandría* pelikula ikusgai izanen da. Azaroaren 6an eta 8an, berri, Borja Cobeagaren *Pagafantas*. Eta azaroaren 13an eta 15ean, Michael Mannen *Enemigos públicos* filma eskainiko da. Hemendik aurrerakoak gerora emanen ditugu.

Ohi bezala, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean izanen dira emanaldiak. Sarrera sei euro kobratuko da.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Lankideen alde kontzentrazioa Osasun Etxean

Goizuetan eta Aranon ezagun egin diren mediku zerbitzuaren bi atzerapenak tarteko, ikerketa abiatua du Nafarroako Gobernuak, eta horren harira, Osasun Etxeko hiru langile deklaratzera deituak izan ziren urriaren 22an. Lankideei elkartasuna adierazteko kontzentrazioa egin zuten gainerako langileek.



ARGAZKIA: AUERRERA PILOTA ESKOLA

Nafarroako Jolasak martxan

Aurrerako pilotari gazteak frontoira itzuli ziren urriaren 16an, aurtengo Nafarroako Jolasei hasiera emanez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Francisco Biurrarenak eta Mercedes Uitzik 50 urte ezkontuta

Larunbat honetan, urriak 31, 50 urte beteko dituzte ezkontuta Francisco Biurrarena Bereauk eta Mercedes Uitzik Gogortzak. 1959ko urriaren 31n Goizuetan ezkondu ziren, Franciscok 34 urte zituela eta Mercedesek 24 urte. Gaur egun Leitza bizi dira eta lau seme-alaba eta lau biloba dituzte. Mende erdia elkarrekin ezkontuta badelako zerbaite, zorionak! Argazkian alaba eta honen senarrarekin ageri dira.



- Logotipoen diseinua
- Tarjeten diseinua
- Triptikoak, folietsoak, karpetsak, gutunazalak, fakturak...
- Kartelak, egutegiak
- Irudi korporatiboa

Eskatu aurrekontua konpromisoak gabel!

Arduzeta, 12 - 31143 Elizate - Tel. 948 435 438 - kulturkari@tipi.net

UDALA → INTERNET

Urtea bukaterako martxan egonen da Udalaren web orria

Animsa enpresa ari da egiten

Juana Mari SAIZAR

Interneteko atari berria prestatzen ari da Udala, eta abendurako eginga egon beharko du. Animsa enpresa ari da egiten, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin eta erdi mailakoa eta elebiduna izanen da. Herritarrei eta bisitariari zuzendutako hainbat informazio eskainiko ditu.

Abendura bitarteko epea dute egiteko, eta beraz, laister denontzako ikusgai egingo da.

Conama sarietan

Gure herria aitzindaria izan da WIFI sistema herri guztian zabaltzen eta horregatik Conama

sarietara aurkeztuko da. Sari honek ingurumenarekin edo garapen jasangarriarekin lotura duten proiektuak saritzen ditu. Ahaleginak, helburuak, metodologia eta eredu-

ko jarrera kontuan hartzen dira. Aipatzekoa da, beste udal asko jarri direla harremanetan Areso-ko Udalarekin, WIFI sistemaren nondik norakoak nola diren jakiteko.

Azaroaren 15a baino lehen proiektua Madril-en aurkeztu beharko da eta sari banaketa azaro bukaeran Sevillan egingo da. Saria aitortpen eskultura bat izango da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Haurrak ludotekan

Esan beharrik ez dago zeinen ongi pasatzen dute neska-mutikoez ludotekan.

FLASH

Ekitaldia azaroaren 9an eskolan

Inmigrazio proiektuaren barne, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariek ekitaldi berria antolatuko dute: *Cuenta cuentos en diversidad* izenekoak.

Azaroaren 9an, astelehenarekin, izango da, 15:00etatik 16:30era eskolan. Hizlariak Bakearen Aldeko Kooperazioko partaideak izango dira.

Akats zuzenketa

Aurreko TTIPI-TTAPA-ren alean Guraso Elkarteak kide batzuek batzordea «arazo pertsonalengatik» utzi zutela aipatu genuen, baina ez da horrela. Arrazoi pertsonalengatik utzi zuten junta, eta ez arazoengatik. Lerro hauen bidez, barkamenak eskatu nahi dizkiegu juntakideei eta irakurleei sortu ahal izan diren gaizki-ultuengatik.



edredoi funtsak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mahnalireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi-azal nordikoak
eta edredoietan espezialistak

Tafalla, 13 • IRUNEA
948 230 634

BAZTAN

MERKATARITZA → SUPERMERKATUA ARRAIOZEN

Heldu den urteko maiatzean irekiko da Arraiozko E.Leclerc supermerkatua

40 bat lanpostu zuzen sortuko direla adierazi dute

TTIPI-TTAPA

Arraiozko merkataritza gune berria E.Leclerc taldearena izanen da. Eta 2010eko maiatzerako zabalik egonen da. Horrela adierazi du proiektuaren bultzatzailea den Urtelorkarteak ohar bidez. Horrekin batera, iragarri dutenez, «Baztan-Bidasoarentzat, E.Leclerc taldearen finkapenak 40 bat lanpostu zuzen sortuko ditu lekuan berean, baita hainbat zeharkako lan ere –azpiegituren eraikuntza eta salerosketa sailak sortuko dituenak–».

LANGILEAREN KONTRATAZIOA

Langileak bi txandatan kontratatuko dituzte, oharrean agerienez, «postuak eskatzen duen esperientziaren ar-

bera»: Lehenik Baztan-Malerreka aldean bizi diren lagun esperimintuak hartuko dira, ibilbide arrakastatsua dutenak, eta bertzeak bertze, lanerako gaitasuna eta helburu komertzioal-lak lortzeko autonomia finkatzen dakitenak. Dagoeneko, ezaugarri horiek betetzen dituzten langileen bila dabilta. Epe laburrean, sei arlotan arduradun izanen direnak hartu nahi dira: horietako bat harategia, urdaitegia, arraindegia, okindegia, gozotegia eta fruta eta barazki-tarako; bertzean jantzeria, horretarako; produktu freskoen bertze bat eta oihal-bazar-produktu tekniko-botika eta lurrindegia eta ordain kutxetarako bertze arduradun bat.

Merkataritza munduaren esperientzia berezirik gabeko lankideak hartuko dira ondotik, Baztan-Malerreka aldean bizi direnak. Langile hauek 2010 hasie-

ran hartuko dira. Curriculumak igortzeko helbide elektronikoa honako ondoko hau da: leclerc.baztan@terra.es.

LEKUKO EKOIZLEEKIN HARREMANAK

Oharrean agerienez, E.Leclerc Baztan/Bidasoak tokiko enprekin harremanetan jartzeko asmoa du, Baztan/Bidasoan egiten diren produktuen salmenta bultzatzeko. Interesatuak egonez gero, helbide honetara idatzi behar da: Baztan-dis, S.L.; Santiago karrika 15, 3. A; 31700 ELIZONDO edo leclerc.baztan@terra.es helbide elektronikora.

Salmentan edo zerbitzu arloan bere negozioa nahi dutenentzat ere areto komertzial tiki batzuk errentan ematen dituzte, gune modulare batean. Azpiegitura hauen planoak eta neurriak aipatutako helbidean eska daitezke.



ARGAZKIA: MAIXABEL ETA LOREA ELIZALDE

Kiloko ondoak Erratzun

Gisa eta neurri guzietako ondoak agertu dira azkenaldian bazter guzietan. Bada erratzuarrek ere harripatu dituzte, eta tartean ederrak. Goiko argazkian ageri den kiloko ondo hori aurkitu zuen, erraterako, Santiago Ibargaraiak. Eta behekoan ageri den 1,250koa Jokin Bengoetxeak. Otordu majoa egin izanen dute biek ere.

MENDI
ostata
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

Iritzi bloga
BERRIA
www.ttipi.net

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

MENDIALDE
Jantzeria
T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

HIRIGINTZA → AHOLKULARITZA

Plaza berria egiteko lehenbiziko desjabetzeak egiten hasi da Udala

Eliza ondoko haur-parkean aparkalekua eginen da

Maite OTEIZA

Santiago eta Jaime Urrutia karriken artean, plaza berri bat sortzeko asmoz, Udala lehenbiziko pausuak ematen hasi da. Hala, lehenago Hotel Lazaroren garaia zena desjabetzeko tramiteak hasi ditu. Hotel Lazaro (Santiago Karrikan) eta Arizkunenearen (Jaime Urrutia Karrika) artean plaza berria kokatuko dute. Horrekin batera, plaza berria egiten denerako, Nafarroako Kutxaren lorategia zena ere murriztu da lurrazpiko edukiontzia paratzeko.

Foru Plaza berritzearekin batera, Eliza ondoko haur-parkean, aparkalekua egiteko asmoa dago, gaur egun, plaza ondoan dagoena ordezkatzeko. Eliza ondoko aparkalekua egiteak, ordea, haurren gu-

rasoen kezka piztu du, nahiz eta Udalak haurparkea mantenduko dela erran.

Karlos Mugiroren laburra saritua

Notes on the Other Sergio Oksmanek zuzendutako eta Karlos Mugiro elizondarrak idatzitako film laburrak

sari nagusia eskuratu du Varsoviako XXV. jaialdian.

Cadiz, Amsterdam, Florentzia, Lisboa... Dagoeneko, Oksman eta Mugiroren lana jaialdiz jaialdi dabil emaitza eta kritika ezin hobeak lortuz.

Laburrak 14 minutuko iraupena du eta 2008ko Sanferminetan

eta AEBetako Key Westen (Florida) eta Idahon grabatua da. Historia 1924an kokatua dago. Sanferminetako egun batean, Ernest Hemingwayk Iruñara egindako lehen bisitetako batean, egiazko Hemingwayk bertze bat izan nahi omen zuen. Eta laburra hipotesi horren ingurukoa da.



Pertsonaia

Joseba APEZTEGIA

Nafarroako buruz buruko txapeldun kadete mailan

Nafarroako buruz buruzko pilota txapelketaren finala jokatu zen urriaren 9an Labriten eta kadete mailan, Txarutako Joseba Apeztegia 15 urteko iruritarrak 18-9 irabaziz Etxarri Aranazko Adur Lasari. Hasean urduri ibili zen iruritarra, markagailuan gibeletik, baina abudo lasaitu eta txapela irabaztea lortu zuen. Apeztegiak erran digenez, «hasieran ez nuen pentsatzen txapela irabaztea, baina azkenean nahiko erraz lortu dut, finalerdian ere 18-1 irabazi bainuen. Zaramagan binaka irabazi nuen, baina hau da nere txapelik handiena».



ARGAZKIA: MAIXABEL

Auzolanean Erratzuko kanposantuan

Urriaren 3an argazkian ageri den kuadrilla honek Erratzuko kanposantua garbitu zuen. Lerro hauen bidez, egindako lana eskertu nahi izan dute.

Iñaki Alzueta margoak

Plaketa dekoratibak eta inbentarioak • Dekorazioak: etxeak, lekuak, irudiak • Fideleak • Berriztatzeak
Luhaketa eta berriztatzeak • Plaketa
Nahi eta eguna arazatuaren gutxienez 15

Tel.: 609 802 417 • Iruñe-Itzieta • Landaber Auzoa • 31711 UFGAZUBI
ginuras.alzueta@yaboo.es

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo • braulio iriarte 33, 1ºD • 31700
948250371 iñuñea • iratzeiko monastegia 62, 4ºC • 31011

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

Txoa: 948 581 408
Mug: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

ZUGARRAMURDI

POSTA ZERBITZUA → SINADURA BILKETA

Erantzun ona izan du Correosek egin nahi duen aldaketaren kontrako sinadura bilketak

44 lagunek
sinatu dute,
kaltetutako ia
guztiek

Koro eta Margari

Correosek baserrietara posta ez eramateko egin nahi duen aldaketa dela-eta, kaltetutako sinadura bilketa bat egin da. Etxalarko Herriko Etxetik atera da ekimen hau eta arras ongi hartu da. Urriaren 17an eta 18an Herriko Etxean sinadura bilketa antolatua zegoen, eta ia ia kaltetutako gehienak pasatu ziren, denetara 44 lagun.

Behin sinadura guztiak bildu ondotik, hurrengo pausua abokatu batekin herrietako alkateak elkarrekin Kontsumo Bitartekaritza Batzordea gatea izanen da.

Mus txapelketa

Hazilaren 6rako Mus Txapelketa Azkarra antolatua dago Graxiana aterpean. Partidak 22:00etan hasiko dira, eta izena momentuan ematea nahikoa izanen da. Hauek dira sariak: bildots bat, sei arno botoil eta gasna bat.

400. urteurrenaren inguruko kantaldia

Laister 400 urte beteko diren gertakariaren oroigarriak egiten ari dira jadanik herrian, eta horren harira, hazilaren 8rako (igandea) izigarri ikuskizun pulita bat prestatu da: Inkisizioak erahildako herritarren omenezko kantaldi bat.

Kantari hauek eskainiko dute emanaldia: Anari, Maddi Oihenaar eta Ornitorinkus (Maialen Lujanbio bertsolaria



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Correosek posta zerbitzuak egin nahi duen aldaketaren kontrakoak dira herritar gehienak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Abesbatzaren kontzertua Elizan

Ahetze, Arbona, Arrangoitze eta Basusarriko lagunak biltzen dituen Jarrarki Elkartearen abesbatza Elizan aritu zen urriaren 17an. Koral honetan 65 kantari aritzen dira, denek kantatzea gustuko dutelako, eta hala, beren emanaldia borondatez eskaini zuten.

eta Judith Montero saxofojolea). Kantaldi honen berezitasuna kantariak emakumeak direla da.

Orduan zigortutako gehienak hala baitziren.

Museoan izanen da, 17:00etan. Sarrerak Ma-

rixan ostatuan daude salgai 10 eurotan, eta egunean erosiz gero, 12 euro balioko dute.

MONTXO OSTATUA



Dantxarinetik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • VRDZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

ARMUA JATEXEA



T. 948 699 131
Zuzendaritza errep. 3. era.
LEZARUA

HERRIKO
ETXERIK
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE



T. 0559342519
Moztan s/ta Warranque

SARA

m

bentamiguel
denda, jatexea eta ostata

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209

KRISI-KONTRAKOGAUA

AZARDAK
7
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00 estatik aintzinerak 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

KRISI-KONTRAKOGAUA

AZARDAK
14
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00 estatik aintzinerak 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

NAFARROAKOKANTU TXAPELKETAREN

FINALA

AZARDAK
21
LARUNBATA

18:00

BETAGARRI

DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

AZARDAK
21
LARUNBATA

00:30 - 9€ Auzetik 11€ Tasián
Sakranta-puntoak: Elizondo, Antxitonea, Txokolo | Lesaka: Abaspi | Iruñe: El Infiernito

KRISI-KONTRAKOGAUA

AZARDAK
28
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00 estatik aintzinerak 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



SARA

LABORANTZA → ERREMIO BERBERAK HEGOALDEAN EROSTEAGATIK ZIGORTUAK

Gertatua gogor salatu dute ELBk eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilari Orokorrak

Frantzia da Europako estatu bakarra holakorik debekatzen duena

Xan HARRIAGUE

Urriaren 20an, 08:30ean Frantziako Aduana-ko Polizia Hauziartzeko Bordara joan eta bazter-rrak miatu ondotik nagusiak, Errandonea senar-emazteak, Kanboko polizia-etxera eraman zituen haien galdezketatzeko. Egun osoan preso atxiki zituzten 18:00 arte.

Hego Euskal Herrian kabalendako erremedioak erosteagatik kontrabandaleporatzen die Anne Kayanakis Baionako prokuradoreak, baita osagarrian «ondorio txarrak» izaten ahal lukeen iruzur delitua ere. ELB ez da batere ados horrekin. «Iparraldeko laborariak Hegoaldean erosten dituzte erremedio gehienak; hemengoak berdinderdinak dira, baina merkeago salduak. Frantzi- an ikertuak ez diren eta arriskutsuak izan dai- tezkeen produktuekin ez dute deus ikustekorik».

Hauziartzeko Bordako senar emazteak libre utzi dituzte, baina aferak aitzinera segitzen du. Karmen Errandoneak

berak onartu du erremedioak Hegoaldean erosi dituztela «prezioa %50 edo %70 merkeago delako».

Lau urteko kartzela zigorra eta 75.000 euroko isuna arriskatzen dute. Egun berean Ainhoako maraxela, eta Zuraide eta Itsasuko laborari bana ere arrastatu zituzten.

OIHARTZUN HAUNDIA

Aferak solas anitz eman ditu laborariak memenu txarrean baitira behi-

DATUA

4

URTEKO KARTZELA ZIGORRA

eta 75.000 euroko isuna paratu nahi diete Errandoneatarrei.

esnearentzat ordaintzen zaienagatik. Gainera ardi- dien erditze sasoin hun- tan laborantza nehor ga-

be uztea kaltegarria gerta liteke. Vicent Bru Pirinio Atlantikoetako Kontseilari Orokorren arabera, «jokoz kanpoko ikuskizun» bat izan da, «manerarik gabekoa».

Jakin behar da Frantzia dela Europako Batasunean herrialde bakarra hori debekatzen duena. 2001az geroztik Europako Legebiltzarrak onartu duen lege batek dio Europako estatu baten baimenduta den erremedioa gaineratiko

edozein estatutan onartu izan behar dela. Zortzi urte pasa badira ere, Frantziak ez du oraino bere egin lege hori, eta Europar bakarra da. Baina harrigarriena da Frantziako Ministroen Kontseiluak ondoko ortzegunean onartzea aurreikusia zuela. Nola ez Errandoneatarrek preso hartu zituzten egun berean Europako Batasunak zigorra eman zion Frantziako estatuari horrelako debekuak indarrean atxikitzeagatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kabareta Lur Berrin

Ikuskizun sorta ikusten ahalko da heldu den igandean Lur Berri gelan. Zala-partaka elkarteak kabaretea antolatu du 18:30etik aitzinera. Baionatik, Senperetik, Beratik, Lesakatik eta Irundik etorriko diren artistek antzerkiak, musika emanaldiak, dantzak eta zirkoa eskainiko dituzte. Katalan batzuek ere parte hartuko dute ikuskizunean. Gomitatuen artean izanen dira Josu Goia eta Jean Michel Bereau, besteak beste. Herriko ordezkari gisa, berriz, Jean François Goietxe *Ipotx* eta Iñaki Iriarte ariko dira. Txalaparta ere izanen da igandeko Kabaretean. Sartzea bost eurokoa izanen da, eta nahi izanez gero, krakada han berean egiten ahalko da.

'IKUSKIZUNA'?

Ez da argi zein izan den polizia operazio horren helburua, kontuan hartuz Karmen Errandonea APLI esne ekoizleen elkartearen elkarteko elduna dela, eta ondoko ortzegunean bilkura bat zutela esnearen prezioari buruz. Gainera 2004an Bretainian izandako horrelako kasu batean Frantziako Justiziak auzia bertan behera utzi zuen. Agian laborariak beldurtu nahi zituzten Bruk dioen bezala «ikuskitzuna» egin ez. Bizkitartean, azken urte hauetan ohointzan behin eta berriz ari direnak segitzen dute. Errandoneatarrek preso atxiki zituzten egun berean ohoinak Keinu tabernan eta Pikasarrian sartu zituzten eta ebatsi zituzten.

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. · koloretan bi aldeetatik · Distira akabera

	100	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	85€	110€

Kulturakal Anduzeta, 12 - 31760 Ebalzar - Tel 948 635 458 - kulturakal@tipi.net



AZPIEGITURAK → TREINBDE PROIEKTUAK HELBARRUN ETA LARRUN ZEHARKATUKO LITUZKE

Hautetsi eta herritar andana trenbide berriaren kontrako manifestaldian

10 000 lagunek bat egin dute Baionako deialdiarekin

Franck DOLOSOR

Helbarrun auzoa eta Larrun mendia zeharka lezaken trenbide lasterren kontra Baionan iragan berri den manifestaldia biziki jendetsua eta anitza izan da. 10 000 lagun pasatxo elgartu ziren, erran nahi baita hunkituak diren 29 herrien herritarren %10. Ideia, kolore, adin, herri eta lan zinez desberdineko manifestariek ziren. Herritar batzuek zioten trenbide berriak ez dutela nahi «ez hemen eta ez nihun», eta denbora berean, manifestaldiaren aitzinean ziren hautetsi batzuk finantzatzen ari dira Tours aldean egiten ari den trenbide berria. Lan horiek diruz laguntzen dituzte Pirineo Atlantikoek eta Akitaniak.

HAINBAT ERREAKZIO

Gai minbera hunek erreakzio ainitz sortu du. Michèle Alliot Marie ministro eskuindarrak proposatu du merkantzi-entzatz egin beharko den linea berria Biarno aldean eraikitzea. Linea berria egitearen alde



ARGAZKIA: EITB.COM-RAMUNTZO GARBISU

Herrietako auzapezek eraman zuten manifestazioko pankarta.

baldin bada ere, Jean Louis Carrère Akitaniako president orde sozialistak dio 2016an arunt baztertuko dutela proiektu hori, merkantzien kopurua ez bada azkarki haunditzen.

Hautetsien eta RFF konpainiaren arteko bilkurek aitzinera segitzen dute. Lapurdiko auzapezen arabera, Prefektak ez du arras baztertzeko lineak Senpere eta Larrun zeharkatuko dituela.

HURRENGO HITZORDUA HAZILAREN 6AN

Bilkura gehiago egiten dira hazilaren 6an, 17an eta 30ean. Azken hitzordu hortan jakin daiteke nondik pasa dai-

tekeen kilometra bateko zabalera duen kolidorea. Pierre Marie Nousbaumekek zuzentzen duen Herriko Etxeko oposizio taldeak batzorde bat sortzea gal-

detu dio auzapezari. Nousbaumen ustez, prefeturak eta RFFk pittaka-pittaka ematen duten informazioaren berri eman liteke batzorde hortan.

FLASH

Bessonart ez da Akitaniako bozetan izanen

France Bleu irratian berriki egin zaion elkarrizketan Christine Bessonart andere auzapezak esplikatu du ez duela parte hartuko Akitaniako bozetan heldu den martxoan. Bere erranetan, ez du balio «alde guzietan izatea». Auzapeza izateaz gain, hego Lapurdiko herri elkargoko president orde da eta Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiaren ordezkoa. Gainerat, berriki Iparralde auzapezen biltzarreko buru izendatua izan da Bessonart.

142 000 euro inbertituko ditu Herriko Etxeak aintzirako auzoan

Herriko Etxeak bi lan hasiko ditu aintzira inguruan. Espaloiak, turismo bulegoa eta bidexka zonbait hobetuko ditu. Bertzalde, hego Lapurdiko herri elkargoari galdetuko dio ur zikinen eta euriaren hodiak hobetzea. Hodiak 1964an egin ziren eta orain berritu behar dira arazoak sor baitaitezke euri ainitz egiten duelarik. Heldu den urte hasta-

penean etxegune berria egiten du herriak aintzirako ur biltegiaren ondoan, Uztaritzeko bidean.

Europako laborantza arduradunek 280 miliun euroko diru laguntza emanen diete esne egileeri. Laguntza hau ez dela aski errepusta eman dute ELB eta FNSEA laborantza sindikatek eta APLI esne egileen batasunak.

suteia
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardurarik, zure igogailu instalatzen dizugu

EZKONTZAK

Iker Aranjuelo Mitxelena eta **Laura Sogues Barela**, Oiartzungoa eta Barzelonakoa, urriaren 11n Goizuetan.
Juanjo Altzuri Apezetxea eta **Maite Lujanbio Etxarri**, Arantzakoa eta Goizuetakoa urriaren 10ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Helene Altzuri Lujanbio, Arantzakoa, urriaren 14an.
Irati Lizardi Abasolo, Berakoa, irailaren 25ean.
Oier Gamio Gonzalez, Gaztelukoa, urriaren 3an.
Ander Mariezkurrena Mikeo, Iturenkoa, urriaren 9an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jose Paul Corrales, Etxalarkoa, urriaren 7an, 88 urte.
Maria Arretxea Arretxea, Sunbillakoa, urriaren 11n, 91 urte.
Josefa Ordoki Almandoz, Lesakakoa, urriaren 13an, 82 urte.
Francisco Larretxea Bereau, Sunbillakoa, urriaren 15ean, 89 urte.
Rosario Mindegia Garro, Doneztebekoa, urriaren 16an, 85 urte.
Ramon Elizalde Sanzberro, Lekarozkoa, urriaren 17an, 82 urte.
Concepcion Bereau Pikabea, Elizondon, urriaren 17an, 81 urte.
Ana M^a Cerda Cerda, Arizkungoa, urriaren 18an, 53 urte.
Francisco Ado Telletxea, Berakoa, urriaren 16an, 59 urte.
Lino Indakotxea Ariztegi, Zubietakoa, urriaren 20an, 36 urte.



Jose Mari BERRUETA ZUBIETA

Etxalarren, 2004ko urriaren 31n

V. URTEURRENA

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrekak S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrekak S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Bere garaian futbolean (Gure Txokoan eta Beti Gazten) eta koxkor biltzen aritu bazen ere, azken bi urteak buru-belarri mendi lasterketei emana da Iñigo Lasaga Arburua,

27 urteko etxalartarra. Aurten, lehen aldiz, Nafarroan federatua dauden korrikalarietuzuzendutako Nafarroako Kopa jokatu da, sei proba puntuagarriekin, eta Lasagak

txapeldun izatea lortu du. Geroztik, Zumarraga-Urretxu mendi lasterketa eta abuztuan Sarako Kontrabandisten Lasterketa ere irabazi ditu aurten.

Iñigo LASAGA | Mendi lasterketen Nafarroako Kopako txapelduna

«Gorputzari gogor egin eta lanean segitu behar duzu egunero»

Aitor AROTZENA | ETXALAR

Sei probetako erregulartasuna saritzen zuen Nafarroako Mendi Lasterketa Kopak eta Iñigo lehen nafarra izan zen Berako Mendi Maratoi Erdian (Fernando Etxegarai beratarra Euskadiko Federazioan sartua baitago), Lakuntza-Aralar, Isabako Camille Extreme eta Olatzagutia-Urbsa probetan, eta laugarrena Beraiango San Donatoko Kilometro Bertikalean. Kopako azken proban, Urbasko Igoeran eta Jautsieran, lehen nafarra ez ezik, proba irabaztea ere lortu zuen. Lasagak 869 puntu eskuratu ditu, eta bigarren izan den Jose Luis Berazak 699. Proba guzietan artean gogorrena Camille Extreme iruditu zaio Lasagari: «Ekain hondarrean, bero egiten zuen, goizean sargori zegoen eta gainera distantzia eta desnibel aldetik gogorra zen. Nire lehen parte-hartzea zen eta bigarren bukatu nuen, kontent, beraz».

Geroztik Zumarraga-Urretxu mendi lasterketa irabazi zuen, 22 kilometroko luzera eta 3.000 metroko desnibelarekin, denboraldia borobilduz. Eskualdean izen handia duen Sarako Kontrabandisten Lasterketa ere irabaztea lortu zuen lehen aldiz. Aizkorriko Maratoian ere parte hartu



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñigo Lasaga, Camille Extreme proba gogorrean.

du aurten, Azpeitiko Mendi Maratoi Erdian eta Hechon proba irabazi zuen. Gainera, nesketan, Lorea Agirre bere neskalagunak irabazi zuen. Horrek aunitz laguntzen duela dio Iñigok, «entrenatzeko orduan elkarrekin egiten ahal duzu, mendia gus-tatzen zaio eta ibilbideak ikusten ditugu aitzinetik eta hori aldeko puntua da».

Zegama - Aizkorri Mendi Maratoian 18. izan zen. Denboraldi hasieran bigarren eta hirugarren postuak esku-

ATLETISMO ESKOLA
«Manttaiek sortu duen atletismo eskola ttikitatik lasterka hasi nahi duenarentzat laguntza bat da, ongi dago. Patxi Irazoki, Cristina Arbués eta gainerako monitoreek badakite eta ongi erakusten dute eta hori lagungarria da kirola haurren artean zabaltzeko»

ratu zituen, baina garai-penak ere ailegatu dira, lanaren eta entrenamenduaren poderioz. «Duela bi urte hasi nintzen eta hasiera guziak zailak izaten dira. Gero ongi entrenatuz gero, urtetik urtera beti pausu bat gehiago ematen da, zure gorputzean konfiantza hartzen duzu...». Bere ustez, garrantzitsuena, kirolari batek izan ditzakeen ezaugarriak baino gehiago, «ez uztea da, eguneroko lanean segitzea, momentu txarrak pasatzen dira, neguan entrenatze-

ra atera behar da. Gorputzari gogor egin behar zaio zerbait egin nahi baduzu. Baina ez gara hortaz bizi eta batzuetan eskapatzen saiatzen gara».

KASIK EGUNERO ENTRENATZERA

Saveran lan egiten du eta, halere, astean 5-6 egun hartzen ditu entrenatzeko. Futbolearen eta koxkor biltzen aritua, mendi lasterketarako hagitz prestakuntza ezberdina egin behar izaten du. «Lasterka hasi nintzen lehen urtean futbolarekin uztartzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa da, edo bat edo bertzea. Koxkor biltzen bi urtez aritu nintzen eta orain anaia gazteak erreleboa hartu du».

Manttale taldean sartua dago, 24 bat kirolari biltzen dituen eta «noizbehinka elkartzen gara denak, asteburuetan eta». Bortzirietan kasik ezezaguna zen kirola hedatzen ari dira. Horren erakusgarri, Iñaki Larrañaga beratarra bederatzigarren izan da Nafarroako Kopako sailkapen orokorrean eta Josu Unsiñon bigarren beterranoetan. «Berako Mendi Maratoi Erdiaren arrimoan jendeak ikusi du zer den eta hasi da animatzen. Lehenago Behobia-Donostia izaten zen eta gutti gehiago».

AIZKORA → APUSTUA

Bi txapeldunen hirugarren hitzordua arazoaren 8an Tolosan

Miel Mindegiak eta Donato Larretxeak apustua jokatuko dute egun horretan Tolosako zezen-plazan

Kirol gogorra da aizkora, baina baita ikusgarria ere. Historian, hamaika momentu gogoangarri eskaini dizkiete aizkolariak zale-tuei. Enborrak kolpez-kolpe eba-kitzea, ordea, ez da ez lan erraza, indar handia behar baitu aizkola-

riak eta horrez gain, ongi presta-tua egotea ere ezinbertzekoa da, baita teknika ere. Gutti dira ezau-garri horiek guztiek betetzen dituzten aizkolariak, baina Donato Larretxea eta Miel Mindegia horie-tako bi dira.

G. PIKABEA | ESKUALDEA

60 urteko Ezkurrako semea eta 49 urteko Arantzakosemea aurrez aurre. Egungo aizkolari-rik onenetakoak. Aza-roaren 8an Tolosako ze-zen-plazan egin dute hitzordua. Aizkora-apus-tuajokatuko baitute egun horretan. Apiril akabe-ran bota zuen desa-fioa Miel Mindegi-ak, eta maiatza-ren 2an

Tolosako Kantabriko ostatuan zainegonen zela erran zuen. Apustu-aren baldintzak ere berak zehaztu zituen: azaroan jokatzea, alde bakoitzak 12.000 euro jokatzea, 60 ontzako 20 enbor ebaki-tzea eta guztiak, gaine-ra, Mindegiak berak era-man eta paratzea. Deia-ri erantzuteko

prest, Unai Otaño ager-tuzen lehen-bizi, baina ez ziren molda-tu. Gipuz-koarrak en-bor erdiak berak era-manen zituela propo-satu zion.

Baina Ezkurrakoak ezetz, denak berak eramanen zituela. Donatorekin hasi zen tratuan ondotik, eta honekin ez zuen arazorik izan.

GAZTETATIK AIZKORAN

Ez dira atzo goizean jaiotakoak, eta aizkora eskuan eskarmentu handiko gizonak dira. Askigoiz hasi ziren aizko-ran, «etxean 12-13 urte-rekin, eta plazan 16re-kin», dio Ezkurrakoak. Ramon Latasa sunbildarra izan zuen erakusle. Arantzarra ere gazterik hasi zen, plazan 18 ur-terekin. Hasiera hartan Periko Mariñelarena donamariarra izan zuen erakusle, eta gerora Joxe Mari Mendizabal. Baina plazan «kasualidadez» hasi zen. «18 urte nitue-la Elizondon Baztan-Bi-dasoako aizkora txapel-ke-tajokatzea zen. Patxi anaia zen aritzekoa, baina motozerrarekin min hartu eta ni joan nin-tzen. Pixka bat aritu eta joan nintzen». Gustua hartu eta aitzinera.

Hasi eta guttira txa-pelak jantzi zituzten biek.



Mindegiak 16 urterekin gazteen mailako txape-la, eta Donatok 18 zitue-la Euskadiko gazteen mailakoa. Geroztik hain-bat jantzitakoak dira. Ezkurrakoak, erratera-ko, Euskadiko eta Nafa-rrako hamarna baditu, eta arantzarrak, berriz, hiru Euskadikoak eta be-deratzi Nafarroakoak.

Apustuak jokatzen ere gazteak zirela hasi ziren. Mindegiak herrita-rik izan zituen kontra-rio: «18 urterekin anaia-rekin jokatu nuen, Ezku-rrako beste bi anairen kontra». Urtebete gehia-go zuela lan handiko bertze bat egin zuen Po-lipasorekin. «Oso gazte-rik lan haundiak eginda-koa naiz», aipatu digu.

Larretxeak, berriz, Donezteben jokatu zu-en lehenbiziko apustua. Egur bateko alde emanez, Barberiaren kontra jokatuz 18 urterekin. 1989an Olasagastiren kontra egindako apustu berezia ere gogoan du arantzarrak: «125 kiloko harri kubikoari 50 altxa-di eman, sei oinbiko moztu eta sei kilometro

lasterka». Eta irabazi egin zuen. Olasagastirekin egin dituen lau apustu-ak denak irabazi ditu.

APUSTUZALEAK

Apustuzaleak dira bik-ak. Horrela aitortu digu-te. Txapelketak ala apus-tuak nahiago dituzten galdetuta, biek ere, apus-tuen alde egin baitute. Donatoren hitzetan, apustueta txapelkete-tan baino «gehiago» eman izan du. «Txapel-ke-tetan, nire burua erraz uzten nuelako edo ez da-kit zergatik, ez dut nire maila erakusten asma-tu». Mindegia ere apustu-zalea da: «Aizkolaria mai-la haundian dagoen ala ez, apustuekin ikusten da. Beti lan luzeak izate-n dira eta aizkolariak probatzeko onenak apustuak dira».

Mindegia da apus-tuetan azkena ibilitakoa.

LARRETXEARI BURUZ

«Betidanik aizkolari haundia eta komple-toa izan da»

Miel MINDEGIA
Ezkurrako aizkolaria





ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
Aspaldiko urteetan punta-punta dabilzan aizkolariak dira Mindegia eta Larretxea, eta hainbat txapel eskuratuak dituzte, banaka zein binaka.

APUSTUA MINDEGIAK ETA LARRETXEAK



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN
Ez dira atzo goizean aizkoran hasitakoak Mindegia eta Larretxea. Argazki hau, erraterako, 1994koa da, Euskadiko txapelketarako egurrak aukeratu zituzteneko.

Hirugarren aurrez-aurrekoa

Elkarren kontra lehen ere ibiliak dira apustueta Mindegia eta Larretxea. 1986an 12 oinbikotara jokatu zuten, eta Ezkurrakoa nagusitu zen. 1989an, berriz, 40 kanaerdikotara jokatu zuten, eta aranztarra izan zen garaile.

Duela bi urte ere jokatzekotan egon ziren, baina beteranoak sorbaldan lesio bat izan eta bertan behera utzi zuten. Azaroaren 8koa, beraz, euren hirugarren lehia izanen da, banako berdinketa hausteko aurrez-aurrekoa.

2006ko abenduan jokatu zuen Olasagastirekin. Enborrak erdibana presatuta, 24 kana-erdiko moztu behar izan zituzten. Ezkurrakoa izan garaile. Larretxeak ere Olasagastiren kontra jokatu du azkena. 98an izan zen eta garaile atera zen.

Olasagastiren kontra ko apustu hura egin zuenetik, lesio «asko» izan dituela adierazi digu Ezkurrakoa: «Larretxearekin apustua egitekotan nabilela, lesio bat izan nuen sorbaldan. Gero meniskotik ere ebakuntza egin zidaten eta beste urte bat egin dut behar bezala osatu gabe». Orain, halere, «osatua» ikusten du bere burua. Larretxeak ere «nahiko ongi» dabilela kontatu digu. Baina gerriaz atzendu gabe: «gerritik operatu nintzenetik halamoduz nabil. Baina momen-

tu honetan ongi nago».

ATSEDEN ASTEA

Entrenamenduetan gogor ibili dira orain artean. Baina azken astearen atarian, lasai hartzeko asmoa dute. «Sobera nekatu gabe ateratzeko plazara», azaldu digu Ezkurrakoa.

Eta hitzordurako biek hagitx gustuko duten plaza aukeratu dute: Tolosakoa. «Nafarroa eta Gipuzkoako zaleentzat erdigunea da», diote. Hainbatetan jokatu taokoak dira Tolosan, eta oroitza pen onak dituzte. Larretxeak, adibidez, 1984an Euskadiko txapelketan azpitxapel dun gelditu zenekoa nabarmendu digu: «Menditik etorri berritan jokatu nuen, etxean hamar egun bakarrik pasatuta. Bigarren gelditzeak ilusioa egin zidan».

SASOIAK EZ DU ADINIK

60 urterekin apusturako deia nolatan egin zuen ere galdetu diogu Mindegiari eta zera erantzun digu: «Lesioak pasatuta nituela entrenatzen hasi eta gustura ikusi nuen nire burua. Eta 'aiz-

kora utzi edo segitzekotan apusturen bat egin behar dut' pentsatu nuen». Eta han bota zuen desafioa. Azken apustua izanen omen da bertzat, baina lan ona egiteko «itxaropenarekin» dago. Donatok, berriz, ondokoen animoekin erabaki omen zuen desafioa onartzea: «ez nengoen apustua egiteko sobera berotua, gerriko arazoez beldurra ematen zidatelako. Baina lagunek eta anaiak animatu ninduten».

EGURREN MISTERIOA

Ebaki beharreko egurrak «normalak» edo «gogorak» izanen diren. Horixe galdetzen du Donatok. Izan ere, apustuan hitzartu bezala, Mindegia du egurren gaineko eskubide osoa. Berak eramanen ditu plazara. Nola koak izanen diren galdetuta, «oraindik erabaki gabea» duela erantzun digu. «Batzuk eta besteak probatzen ari gara eta azken astean erabakiko dugu zein eraman». Eta zurrumurruek gisa bate-

ko egurrak izanen direla dioten arren, Larretxea «jendearen erranarekin ezin fidatu» eta horren arabera moldatu behar entrenamendua.

Hasi da erlojuaren kontrakoa. Astebete gelditzen da. Batek zein bertzeak ez dela batere erraza izanen diote. Aizkolari gogorak baitira, eta ez daude arerioari lanak erraz uzteko prest. Mindegia aurkariari buruz, «betidanik aizkolari haundia eta konpletoa» izan dela adierazi digu,

eta Donatok Mindegiaren teknika nabarmendu du: «Inork ez bezala egiten dio bere buruari gogor».

Ohiko laguntzaileak izanen dituzte ondoan, Lorentxo Apezetxea eta Cipriano Telletxea Ezkurakoak, eta Leon Albeniz Iruntxiberri eta Oihan semea aranztarra.

Palmares bikaina duten bi aizkolari haundiok azaroaren 8an ikusiko dute elkar, Tolosan.



MINDEGIARI BURUZ
«Inork ez bezala egiten dio bere buruari gogor»

Donato LARRETXEAK
Arantzako aizkolaria

urriak 30 - azaroak 12

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Feriak



DONEZTEBE | 2009.11.13

Udazkeneko Azienda Feria

Elizondori lekukoa hartuz, Donezteben ere aziendak ikusgai izanen dira. Arratsalderako herri kirol saio ederra: aspaldiko partez Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala.

Kontzertuak



ELIZONDO | 2009.10.31

Jalisko Band eta kantu zaharren diskoa

Kantu Zaharren Eguna azaroan egingen da Urdazubin, baina Jalisko Band taldeak kantu zaharren diskoa aurkeztuko du larunbatean Lur diskotekan.

Antzerkia



BERA | 2009.11.06/13/27

XI. Kafe Antzerki Zikloa

Hamekagarren urtea beteko duen Antzerki Zikloan Zirika Zirkus, Txirene eta Apurka antzerki taldeen lanak ikusgai izanen dira Errekalde, Ikuilu eta Xuga ostatueta.

Anari, Maddi Oihenart eta Ornitorrinkus taldeak museoan 17:00etan. Sarrerak Maxiran ostatuan (10 euro) eta egun berean (12 euro).

Kirolak

BERA

Larungo I. Mendi Bizikleta Igoera

Azaroaren 1ean antolatatu du Gure Txokoa 8,9 kmko proba. Irteera 10:00etan. Izenematea 8:30etik aitzinera. Xehetasunak 10. orrian.

Feriak

ELIZONDO

Udazkeneko Feriak Urriaren 30ean.

DONEZTEBE

Udazkeneko Feriak

Azaroaren 13an. Xehetasunak 19. orrian.

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean. Xehetasunak 15. orrian.

Ikastaroak

ETXALAR

Krisiari aurre egiteko informatika ikastaroak

Urriaren 28tik 30era Lana bilatzea Interneten.

Azaroaren 5 eta 6an Musika eta irratia entzun, eta telebista ikusi Interneten. Izenematea: 948 635386-kulturetxea@etxalar.org.

ELIZONDO

Astrologia ikastaroa

Ortzegunero 19:00etatik 21:00etara, guttienez 6 lagunekoko taldea osatuta. Karta astrala interpretatzeko ikastaro praktikoa. Informazioa: izarjewel@hotmail.com

Antzerkiak

BERA

XI. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 6an, Zirika Zirkus taldearen *Pantxika Lamur* antzeslana Errekalde ostatuan 22:00etan.

Azaroaren 13an, Txirene Antzerki taldearen *Gezurrezko printzea* ostatuan 22:00etan.

ARANTZA

Kultur Egunen barne

Urriaren 31n, Kili-Kololo taldearen *Klowntuz! Mendia!* emanaldia 20:00etan eskolan.

Bertsoak

ARANTZA

Bertso-afaria Ekaitzan

Urriaren 30ean, Julio Soto eta Jon Maiarekin 21:00etan Ekaitza Elkartean.

Erakusketak

URDAZUBI

Gaur egungo pintura

Urte osoan, erakusketak. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monasterioan.

BERTIZ

Diana Iniestaren margo erakusketa

Urriaren 1etik 30era, Diana Iniestaren *Como árboles* margo erakusketa Natur Parkean.

BAZTAN

'Bertan' Argazki lehiaketako lanak

Urriaren 8tik 29ra, komertzianteen elkar-teak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikus-

gai Arizkunenean.

Bestak

AURTITZ

San Martin bestak

Azaroaren 5, 6, 7, 8 eta 11n ospatuko dituzte. Xehetasunak 24. orrian.

Kontzertuak

ELIZONDO

Jalisko Band eta kantu zaharren diskoa

Urriaren 31n Lur diskotekan kantu zaharren diskoaren aurke-

pena eta gaupasa Jalisko Band taldearekin. 23:00etan. Sarrera: 9 euro.

ETXALAR

Muthiko Alaiak fanfarrea

Urriaren 31n Irungo txistulari bandaren emanaldia Kultur Etxean 15:00etan.

ZUGARRAMURDI

Inkiszioak hildako herritarren omenez

Azaroaren 6an kantaldea eskainiko dute

PROPOSAMENA

ARANTZA

Baserritarren Eguna azaroaren 1ean

Arantzako Kultur Eguneri akabaila emanez, Baserritarren Eguna ospatuko da azaroaren 1ean. Goizean hasiko da feria frontoian eta lehen aldiz ahate lehiaketa egingen da. Gazta lehiaketak ere ez du hutsik egingen eta 13:30 aldera sariak banatuko dira. Eguerdian, zate baten zozketa ere egingen da, azokako produktuekin bete.



Ipuin kontalariak

BERA

Haurrentzako ipuin kontalariak

Urriaren 30ean *Ipuin ttikiak* kontatuko ditu Ines Bengoak 4-7 urte artekoentzat, 18:00-etan liburutegian.

Ospakizunak

SUNBILLA

Ekitaldiz beteriko larunbata

Urriaren 31n egun polita antolatu dute Ulibeltzak elkarteak eta Sunbillako dantza taldeak. Xehetasunak 16. orrian.

Lehiaketak

LEITZA

Literatur lehiaketa antolatu du ALKEK

Urriaren 31rako aurkeztu behar dira narrazio eta ipuin lehiaketa eta bertso-paper lehiaketarako lanak.

Zinema

LEITZA

Denboraldi berria

Urriaren 30ean eta azaroaren 1ean *The Fall. El sueño de Alejandría* filma ikusgai izanen da zinemari.

Azaroaren 6 eta 8an Pagafantas filma.

Azaroaren 13 eta 15ean *Enemigos públicos* filma ikusgai. Ostiraletan 22:30ean, igandetan 19:30ean.

LESAKA


Sukalde kontuak

Azaroaren 14an *Sukalde kontuak* filma ikusgai komentuan 18:00etan. Sarrera doan. Antolatzaileak: Euskarabidea eta Lesakako Udala.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Londres kartoizkoa da

Unai ELORRIAGA

Elkar, 2009

Arratsaldero igotzen da Phineas, bere lagune-kin, hamazazpigarren teiltura, handik bakarrik ikusten baitira herriko bi sarrerak batera: errepidea eta tren-geltokia. Itxaroten daude, izan ere, uda honetan iritsi beharko lukeen norbaiten zain. Erabat amaitu ez den diktaduraren ondorengo garai lanbrotsuan, krudelkeriaren oroitza jaso eta gorde nahi dute pertsonaiek, beren zauriak behingoz ixteko, tiraniaren zerbitzariak zirrikitu guztiak itxirik dituzten arren. Berrikuntza osoa eman dio Elorriagak bere obrari, bai gaiaren, bai idazkeraren aldetik, baina bere erroei eutsiz: itxurazko soiltasun guztiz landua, literatur lana erlojuaren doitasuna duen artefaktua ere izatea, gizon-emakumeen beldur eta sentimendu sakonetara heltzeko gaitasuna. Unai Elorriagak hiru eleberrri kaleratu ditu orain arte: *SPrako tranbia* (2001) Espainiako Narrati-ba Saria irabazi zuena, *Van't Hoffen ilea* (2003) Igar-tza Saria jasotakoa, eta *Vredaman* (2005). Zortzi hizkuntzatarata itzuli dira orain arte bere obrak.

Musika



GOSE III

GOSE

LA CHIQUILLA, 2009

Gose taldea hirukoa da (Ines Osinaga –ahotsa eta trikia–, Iñaki Bengoa –sekuentziak, programazioak eta erritmoak–, Osoron –gitarra eta baxua–) eta 2004an sortu zen Arrasaten (Gipuzkoa). Gose taldea hirugarren lanera iritsi da. Gose denari jateko ordua ailegatu zaio. Gose taldea musika jateko, Euskal Herriko triki-pop musika eta, tradizioa iraultzeko, musikari berrikuntzak ezartzeko eta bide berriak urratzeko sortu zen, eta gainera, plazer handiz. Gose taldearentzat gosea plazera da, gero hori asetuko duen jakia ahoan badago. Plazera entzumenean, plazera ikusmenean. Gose taldeak beti pentsatu izan du itxuraren azokan horri aurre egiteko modurik egokiena jarrera musikatu dela, hitz esanguratsuaz hornitua. Gose taldeak hiru zutabe nagusitu ditu. Hiru musikari, hiru zutabe. Habetu egin behar gabeko eraikin sendoa. Musika-habeak, hitz-habeak, jarrera-estetika-habeak. Hiru musikari eta zutabe bakoitzari hainbat habe sendo.

Internet



BERTAN Baztango merkatarik elkartea

BERTANBAZTAN.COM

Baztango merkatarik, zerbitzu eta ostalaritza elkartek, Bertan elkarteak webgune osotua dauka elkarteko ekitaldien berri emateko. Aurkezpen orrian, 2006. urte bukaeran sortu zela eta elkarteaz bertze jakingarriak eskaintzen ditu, zuzendaritza batzordeko kideak zein diren erraterako. Bazkide zerrendan, arloz-arlo elkartea osatzen duten komertzioak ageri dira, helbide eta telefonoekin. Berriak/Ekitaldiak atalean, 2008an eta 2009an egindako ekitaldiak ageri dira, argazki eta guzi. Ikastaroak atalean, elkartekideei zuzendutako prestakuntza-ikastaroen eskaintza ageri da; Eskaintzak atalean, une jakin batean komertzioek izan ditzazkeen eskaintza bereziak; Baztan atalean herriari buruzko datu geografiko, demografiko eta historikoak daude, argazki ikusgarriekin hornitua. Loturak atalean bertze link-etara joateko aukera dago eta Kontaktua atalean harremanean jartzeko.

Nire aukera



Lorena GALARREGI
Elgorriagako Balnearioko

Irakurtzea eta, batez ere, gidatzea dira nire eskape bide gustukoena

Ireki berria den Elgorriagako Balnearioko hoteteleko eta marketineko zuzendaria da Elgorriagako gaztea. Horrek, noski, «nire denboraren zatirik haundiena kentzen dit, baina aldi berean, lanaz eta lanean disfrutatzea ere atsegina da. Hori posible izateko, «lan talde bikaina» daukala azpimarratu du. Eta asti pixko bat duenean zer? «Irakurtzea aunitz gustatzen zait, tematika orientalekoak, adibidez, baina batez ere gidatzea, hori da nire eskape biderik gustukoena. Eta alde batetik bertzerak mugitzeko aukera baldin badut, hobeto! Txalo osabarekin moto klasikoen kontzentrazio batera egindako bidaia hagitza berezia izan zen». Horrengatik, asteburu bat antolatzeko planik onena galdetzerakoan ez dauka zalantzarik: «Bidaia-tzea eta abentura duen edozer asteburu perfektua iruditzen zait. Berdin zait norabide jakin batekin edo gabe ateratzea, bakarrik edo konpainian, gauza bakoitzak bere unea dauka».

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/*elvetearra@aol.com*.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuek bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

IGANTZI. Latsaga 22, 1 ezkerria pisua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldia. Mobleztatua. Gara-
jea edota trastelekuarekin. Bista ezinhobeak. Berogailua. 162.275 euro. ☎948 259039/948 149857.

LESAKA. Etxe bat salgai. Informazio gehiagorako. ☎609 477277/618 188300.

ARANTZA. Etxebizitza salgai. Prezio interesgarria. ☎697 454866.

DONEZTEBE. Herrigunean pisua salgai. Bista onak, mobleztatua eta dena berria. ☎637 234539.

DONEZTEBE. Intzakar-
di parkearen ondoan pisua salgai. Pisua ganbarearekin elkartua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. Garaie plaza-
zarekin. Berritua. ☎680 781632.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldia.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

Dena mobleztatua eta berritua. Berogailuarekin. 189.000 euro. ☎948 630075/ 647 617837.

ARIZKUN. 90 m²ko pisua salgai. Sukalde mobleztatuarekin eta sartzeko prest. ☎646 245619.

DONEZTEBE
Zazpigarutze plazan
115 m²ko pisua salgai.
3 logela, 2 bainugela
eta trastelekuak. Eguzki-
tsua eta estreinalu gabek.
630 948271

ETXEBIZITZAK
errentan eman

IGANTZI. 90 m²ko pisua errentan emateko. Mobleztatua eta kalefakzioarekin. Hagitz egoera onean. ☎620 997794.

IRUÑEA. Iturruma auzoan ikasleendako pisua errentan emateko. 4 lo-

gela eta 2 bainugela. 850 euro. Berogailua eta komunitateko gastuak barne. ☎690 722683.

IRUÑEA. Unibertsitate publikoaren ondoan da-
goen pisua errentan emateko. ☎669 082682.

DONEZTEBE. Herrigunean pisua errentan emateko. 3 logela kanpo aldera begira. ☎619 221318.

BERA. Altzaten pisua errentan emateko. SU-
kalde-jangela, egongela, 3 logela, 2 komun kon-
pletoak eta berogailua etxe guzian. Gela guziek argi naturala. Bizitzera sartzeko prest. ☎680 984124/948 631603.

ETXEBIZITZAK
erosi

LESAKA. Etxe bat edo baserri bat erosi nahi da. ☎609 477277.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

LESAKA. Pisua errentan hartu nahi da. Ahal dela hutsik edo erdi hutsik, sukaldia hornituarekin (etxetresnak). ☎696 054148.

GARAJEAK / LOKALAK
salgai

LESAKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albis-
tur, 43. ☎659 609678.

ELIZONDO. 60 m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Den-
da edo bulegorako prest. ☎675 433415.

GARAJEAK / LOKALAK
errentan eman

BERA. Kanttonberri ka-
lean 70 m²ko lokal ko-
mertziala errentan emateko. ☎655 706364.

LANA
eskariak

Mutil bat edozein lane-
tan ariko litzateke. ☎667 605025.

LESAKA. Neska bat za-
harrak zaintzen edo gar-
biketari ariko litzateke,
08:00etatik 16:00etara.
☎667 605025.

Emakume bat edozein
lanetan ariko litzateke.
☎672 747754.

Emakume bat edozein
lanetan ariko litzateke.
☎617 627743.

Neska batek adinekoak edo
harrak zaindu edo jatetxe-
an lan egiten luke. ☎610 928049.

LANA
eskaintzak

Iparraldean eta inguruan lan egiteko ekipamendu sistema eta seguritatean lanean aritzen den en-
presa batek komertziala behar du. Euskara, gaztelania eta frantsesa jakitea, elektrizitatean oi-
narrizko ezagutza izatea eta norbere autoa izatea eskatzen da. Curriculum-
mak: info@sidepnr.com
edo Sidepnr S.L., Cues-
ta de la Encina 26, 01474
Artziniega (Araba).

IRAKASKUNTZA
eskaintzak

BERA. Pintura, marraz-
ki eta frantses klaseak
emanen nituzke. ☎620 719400.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urriaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 33,00 € (=)

Zerri gizena
0,095 € kiloak. (-0,045)

Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (-0,010)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89 (=)

1.koa 3,59 (=)

2.koa 2,99 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,99 (=)

1.koa 3,69 (=)

2.koa 3,19 (=)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,82/2,92
Zaldi-behorrak: 1,52/1,72
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,70
8-10 kilokoak: 6,60/7,00

MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

Renault Clio NA-8531-AF salgai, 1.2 RL, 3 atekoa, urdin iluna. 150.000 kilometro. Egoera onean. 500 euro. ☎948 630886.

Suzuki Grand Vitara salgai, 3 atekoa. 33.000 kilometro. 14.000 euro. ☎607 924379.

Honda Hornet 600, Naked salgai. 6.000 kilometro. Egoera onean. ☎948 638299.

Peugeot 206, 1.6-16V gasolina salgai. 115 zaldi, extra guziekin. 4 gorpilak berriak, klimatizagailua, llantak, musika ekipo ona, beira beltzak, suspentsioa bajatu. Dena homologatua. 2 urte-tarako ITV pasatua. 60.000 km. Oso egoera onean. ☎666 230820.



MOTORRA
salerosketak

Suzuki Grand Vitara 2.0 TD salgai. 2005ekoa, egoera onean, ITV maitezean pasatua. 30.000 km. ☎639 156105.

Renault Laguna 1.8 gasolina salgai. 95 zaldi. 1998koa. Konfidantzakoa eta hagitz egoera onean. ☎606 260659.

Citroen Jumpy salgai. 300.000 kilometro. Azien-dak ibiltzeko prestatua. NA-AU. ☎629 059740.

Volkswagen Polo gorria salgai. 2000koa. Egoera onean eta kilometro guttirikin. 2.400 euro. ☎608 825417.

ANIMALIAK
oparitzeko

Artzain **zakurkumeak** oparitzeko. ☎620 985265.

ANIMALIAK
salerosketak

Setter arrazako **zakurkumea** salgai. 4 hilabete txertatua. Aita eta ama ehiztari onak. ☎661 821645.

Adarrik gabeko **ahare muturgorria** salgai. ☎606 019337.

Labrador Retriever arrazako zakurra salgai. 3 urtekoa eta hezia, konpainiarako hagitz ona. Papera baditu eta pedigriekin. ☎670 251632.

Aker nanoa salgai. ☎616 860060.

DENETARIK
salerosketak

Belar idorren boloak eta **lastoa** salgai. ☎690 776147.

Botoidun **akordeoia** sal-

Talleres SANTESTEBAN
Zure neurritza egindako erremoiak
Doneztebeko gasolindegian ondoan erakusketa
DONEZTEBE • Leitzako errep. 80 • T 948 450 282

gai: Pigni 42-B. Bihur-garria, bassetti eta baxu estandarrak. Eskuin eskua: 7 erregistro, mentorena: 3 erregistro eta ezker eskuan: 7 erregistro. 102 baxu. ☎630 942174/948 637793.

3 urteko **trikitixa** salgai. ☎686 840064.

ARANTZA. Arkazia pike-te ederrak salgai. ☎948 634204.


Haur batentzako **botoidun akordeoia** erosiko nuke. ☎618 963348.



NEGOZIOA IXTELAGATIK SALGAI!
Haurren plastikoa, 4 sulo sukante-industrialetatik gabe eta egonera onean, balentzia digitaletan eta sukante-erretzeko tresnak.
617 461649

PROIEKTU ZENBAKI: 15.996
TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
EGINZAZU TTIPI-TTAPAREN ALDE

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a baino lehen.



Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari



urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Donostiako **MIKEL JIMENEZ ZAPIANEK** 4 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, arreba Sofia eta familia guztiaren partetik.



LAIENE bihurritxo, urriaren 31n zure bigarren urtebetetzea denez, zoriondu nahi zaitugu! Arroseneko denen partetik eta bereziki zure ahizpa Naia eta zure lagun Unaxen partetik. Zorionak! Eta muxu haundi bat! Paaa!



LAURAK 27 urte bete ditu urriaren 16an. Zorionak zure familia osoaren partetik. Muxu haundi bat.



ITXASOK 9 urte bete ditu urriaren 26an. Zorionak maitasun haundiz Lesakatik. Maite, Luis eta bertzeak. Muxu bat.




JOANES SAINT MARTIN saratarak urriaren 28an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu aunitz familia guztiaren partetik.




UXUE IBARRA MARIEZKURRENAK urriaren 28an 2 urte bete ditu. Zorionak sorgina aitaxo eta amatxoren partetik. Segi beti bezain alai!



UXUE IBARRA MARIEZKURRENAK urriaren 28an 2 urte bete ditu. Zorionak Sunbilla eta Ezkurako familien partetik, bereziki izeba Maiteren partetik.



XAN LARRAÑAGA PRADEREK urriaren 27an 6 urte bete ditu. Zorionak Sara eta Berako familia eta bereziki lehengusin Maialen eta Arantxaren partetik.



MIKEL JUANOTENA azaroaren 8an 4 urte beteko dituzu. Zorionak osaba-izeba eta bereziki Joanes-en partetik. Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna!



XUBAN GASTEARENA IRISARRIK 4 urte beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez potoko! Muxu pila pila Ezkurra eta Etxalarko familia guziaren partetik.



ONINTZA ZAPIAIN ABUIN. Zorionak prexioxa!!! Ea hurrengoan bixigu bat arrantzatzen duzun! Muxu haundi bat familiaren partetik.



Sunbillako amatxi **XOLERI** aunitz urtez urriaren 6ko partez! Muxu haundi bat Pablo bihurriaren partetik.



XANET APEZETXEA ETXEBERRIA goizuetarrak urtea beteko du urriaren 31n. Zorionak potto eta muxu haundi-haundi bat atxa, ama eta bereziki Aioraren partetik.



OIHAN eta **NAHIA PIKABEA** gure bikoteak azaroaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat!!!



LEIRE GOMEZ GOIETXE gure nexka handiak 6 urte bete ditu urriaren 18an. Aunitz urtez eta kiloko muxuak familia guziaren partetik.



Sunbillako **KLEMENTE IRIARTE IBARRARI** zorionak azaroaren 6an urteak beteko dituelako, bere familia guztiaren eta bereziki berekin argazkian dauden Iraide eta Garaine alabatxoaren partetik. Ongi pasa eguna. Mila muxu!



Zubietako **MIRARI IRIBARREN** **JUANIKORENAK** azaroaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak gure neskatxari haunditzen ari da eta. Muxu asko Zubieta eta Doneztebeko familiaren partetik, bereziki Aimarren partetik.



Leitzako Goiko Sorra baserriko **JOXE MIGUEL** eta **PAKITAK** azaroaren 3an eta 15ean urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik, eta jarrai dezazuela umor eta osasun bikain horrekin guri gozarazten.



Arroseneko printzesa txikian 2 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak **LAIENE!**

DAGOENKO 808 LAGUNEK egin dute gure alde



eskerrik asko!

ttipi-ttapa fundazioak zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**

Eskatzen dugu TTAPI-TTAPAren proiektuak oneratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTAPI-TTAPA-ra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

can

ARANTZAKO KULTUR EGUNAK



Urriaren 30a, ortzirala

20:30 Marimendi emakume mendizale taldearen aurkezpena.
Europako gailurrera espedizioa; Eibrus (5.642).
Zahar Txokoan.
21:30 Bertso afaria. Julio Soforekin eta Jon Maiarekin.
Ekaitza elkarteak.



Urriaren 31, larunbata

17:00 Tor magoa. Frontoian.
18:00 Otordua. Guraso Elkarteak emana.
Frontoian.
20:00 Antzerkia. Kil-Kolo taldea:
Klownuz! Mendial emanaldia.
Herriko eskolan.



Azaroaren 1a, igandea, Baseritarren Eguna

Goizean Feria. Frontoian.
11:00 Ahar lehiaketa.
1. saria: 60 euro,
2. saria: 30 euro,
11:30 Gazta lehiaketa. 15 euro parte-hartzaile guzientzat.
60 eurako saria gaztarik hoberenarentzat.
13:00 Sari banatzea.
Gaitz guzian Salda eta pintxo beroak.
Eguerdian Zare baten zozketa egingen da. feriko produktuekin batea.



ANTOLATZALEA:
Arantzako eskola
Baseritza



BERAKO^{XI}. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

09

Azaroak 6, ostirala, Berako Errekalde ostatuan, 22:00etan

Zirika Zirkus taldea

PANTXIKA LAMUR

Azaroak 13, ostirala, Berako Ikuilu ostatuan, 22:00etan

Txirene Antzerki Taldea

GEZURREZKO PRINTZEA

Azaroak 27, ostirala, Berako Xuga ostatuan, 22:00etan

Apurka Antzerki Taldea

HAN IZAN EZIK, HONA NAIZ



TXINGUDI DEEJAYS®



DJ/ANIMATZAILE KOLEKTIBOA

EZKONTZAK / BATAIOAK / IREKIERAK
DISKOTEKAK / KARAOKEAK / KARPAK / BESTAK

T 637 513 362 www.txingudideejays.com

EZKONTZAK ETA EKINTZAK

GIRO ETA ANIMAZIO HOBERENAK!